



LITERATURA
LITERATURA

02

Estibalitz Ezkerra Vegas

BASQUE.



ETXEPARE
EUSKAL
INSTITUTUA

LITERATURA
LITERATURA

02

Estibalitz Ezkerra Vegas

BASQUE.

01
Euskara
La lengua vasca

02
Literatura
Literatura

03
Musika klasikoa
Música clásica

04
Euskal kantagintza: pop, rock, folk
La canción vasca: pop, rock, folk

05
Artea
Arte

06
Zinema
Cine

07
Arkitektura eta diseinua
Arquitectura y diseño

08
Euskal dantza
La danza vasca

09
Bertsolaritza
Bertsolarismo

10
Tradizioak
Tradiciones

11
Sukaldaritza
Cocina

12
Antzerkia
Teatro

Etxepare Euskal Institutuak sortutako bilduma honek hamabi kultura-adierazpide bildu ditu. Guztiak kate bakarraren katebegiak dira, hizkuntza berak, lurralde komunak eta denbora-mugarri berberak zeharkatzen dituztelako. Kulturaren eskutik, euskararen lurraldean tradizioa eta abangoardia nola uztartu diren jasoko duzu. Kulturaren leihotik, bertakoaren eta kanpokoaren topalekua erakutsiko dizugu. Kulturaren taupadatik, nondik gatozen, non gauden eta nora goazen jakiteko aukera izango duzu. Liburu sorta hau abiapuntu bat da, zuzan jakin-mina eragin eta euskal kultura sakonago ezagutzeko gogoaz piztea du helburu.

Esta colección creada por Etxepare Euskal Institutua reúne doce disciplinas culturales. Todas ellas están entrelazadas porque comparten lengua, territorio e historia. De la mano de nuestra cultura, te invitamos a ser testigo de la fusión entre tradición y vanguardia, del mestizaje de lo propio y lo foráneo, te invitamos a conocer, en suma, de dónde venimos, dónde estamos y hacia dónde vamos. Este conjunto de libros es un punto de partida cuyo objetivo no es otro que despertar tu curiosidad.



BASQUECULTURE.EUS
THE GATEWAY
TO BASQUE CREATIVITY
AND CULTURE

LITERATURA

LITERATURA

Estibalitz Ezkerra Vegas

10	Euskal edo euskarazko literatura	Literatura en Euskara
10	Narratiba	Narrativa
42	Ipuina	Cuento
46	Poesia	Poesía
60	Beste hizkuntzetan egindako literatura	Literatura vasca en otras lenguas
72	Bibliografia	Bibliografía

Nola lortu du Mendebaleko Europako berezko hizkuntzen artean indoeuroparra ez den bakarrak bere lekua hartzea XXI. mendean? Zertan datza euskal kultura gaur egun eta zertan bereizten da besteengandik? Zer presentzia merezi du nazioartean?

Liburu hauen bidez, Etxepare Euskal Institutuak erantzun batzuk proposatu nahi ditu, beste kultura eta identitate batzuei eskua luzatzeko asmoz. Elkar ezagutzea baita elkar estimatzeko eta ulertzeko modu bakarra. Ongi etorri.

¿Cómo ha logrado la única lengua autóctona de Europa Occidental que no es de origen indoeuropeo ocupar un lugar propio en el siglo XXI? ¿En qué consiste la cultura vasca hoy y en qué se diferencia de otras? ¿Qué presencia internacional merece?


A través de esta colección de libros Etxepare Euskal Institutua quiere proponer una serie de respuestas, con el fin de tender la mano a otras culturas e identidades. Porque conocernos mutuamente es la única manera de apreciarnos y entendernos. Ongi etorri.

Historia labur honen helburua XX. eta XXI. mendeetako Euskal Herriko literaturaren garapenari begira esanguratsuak izan diren gertakariak eta egileak aipatzea da. Euskal Herriko zein euskal jatorriko idazleek beren hizkuntzetan (euskara, gaztelania, frantsesa eta ingelesa) ekoiziriko literaturari deritzogu Euskal Herriko literatura. Lehen atalean, euskarazko ekoizpena izango dugu hizpide; ondoren, gainerako hizkuntzetan egindako literaturari helduko diogu.

Euskal edo euskarazko literatura

NARRATIBA

Hastapenetan eliz munduari eta hezkuntza erlijioitsuari loturik egon bazen ere, XIX. mendetik aurrera euskarazko literaturak bestelako norabidea hartu zuen nobela bezalako generoei ongi etorria emanez (Mitxelena, 1988: 141). Aipatu mendean bost nobelek bakarrik argia ikusi bazuten ere (Lasagabaster, 1981: 348), erronka handia izan zen bestelako joerei atea ireki zielako. Dena den, XX. mende erdialdera arte itxaron beharko dugu euskal literatura jardueria autonomo izan dadin euskal gizartearen.



Euskal nobelaren aurrekariaren artean Juan Antonio Mogelen *Peru Abarka* dugu, 1802rako osatua baina 1880ean argitaratua. *Peru Abarka* beraren eta Maisu Juanen arteko solasaldia du oinarri, eta helburu didaktikoarekin idatzita dago: euskotar ilustratuak euskararen balioaz konbentzitu nahi ditu lanak. Aipatu beharreko beste hiru lan dira Jean Baptiste Elizanbururen *Piarres Adame* (1888), Resurreccion Maria Azkueren *Bein da betiko* (1893), zein Bizenta Mogelen *Ipuin onak* (1804), emakume batek argitaraturiko lehen lana, Esoporen fabulen moldaketa.

XIX. mendeko azken herenean, Bigarren Gerra Karlistaren ostean, Antonio Cánovas del Castillok foruak ukatu zituen.

Euskararen oraina eta geroa foruei lotu zituzten hainbatek, haien artean Juan Ignazio Iztuetak, zeinak *Guipuzcoaco provinciaren condaira edo historia* (1847) adierazi zuen: «Euscara ill esquero Fueroac ez dira bicico; banan Euscara bici bada, Fueroac piztuco dira» (Madariaga, 2006:159). Zentzu horretan, ez da harritzekoa 1876an euskararen eta euskal kulturaren aldeko mugimendua, *Pizkundea* bezala ezaguna, agertu izana, Kataluniako *Renaixença* zein Galiziako *Rexurdimento* mugimenduen pareko. Alemaniako filosofo idealisten espirtu erromantikokoaren ildotik euskaraz idatzitako literatura euskal arimaren islatzat jotzen hasi ziren, lehenengoaren helburua zelarik bigarrena babestea eta sustatzea. Horren harira, zenbait literatur ekitaldi antolatzen hasi ziren,

El objetivo de esta breve historia es señalar los acontecimientos y nombres más relevantes con respecto al desarrollo de la literatura vasca a lo largo de los siglos XX y XXI. Por literatura vasca entendemos la literatura producida por autores vascos o de origen vasco en sus diferentes lenguas: el euskera, el castellano, el francés y el inglés. En primera instancia repasaremos la producción en euskera para después dar paso a la literatura escrita en otras lenguas.

Literatura en euskera

NARRATIVA

Si bien en sus comienzos la literatura vasca en euskera estuvo ligada al mundo eclesiástico y a la educación religiosa, a partir del siglo XIX la misma tomó otro rumbo dando la bienvenida a géneros como la novela (Mitxelena, 1988: 141). Si bien en aquel siglo solo vieron la luz cinco novelas (Lasagabaster, 1981: 348), fue en todo caso un hito porque abrió las puertas a otras tendencias. No obstante, hubo que esperar hasta mediados del siglo XX para que la literatura en euskera pasara a ser una actividad autónoma dentro de la sociedad vasca.

Entre los predecesores de la novela en euskera se encuentra la obra *Peru Abarka* de Juan Antonio Mogel, finalizada en 1802 y publicada en 1880. Esta obra se basa en el diálogo que mantienen el propio Peru Abarka y Maisu Juan, y está escrita con un claro objetivo: convencer a los ilustrados vascófilos del valor del euskera. Cabe reseñar otras tres obras, *Piarres Adame* (1888) de Jean Baptiste Elizamburu, *Bein da betiko* (1893) de Resurrección María de Azkue, así como *Ipuin onak* (1804) de Bizenta Mogel, adaptación de las fábulas de Esopo además de ser el primer trabajo publicado por una mujer.

En el último tercio del siglo XIX, tras la Segunda Guerra Carlista, Antonio Cánovas del Castillo suspendió los fueros. Con anterioridad, varios autores habían conectado el presente y futuro del euskera a los fueros, entre otros Juan Ignazio Iztueta, quien en *Guipuzcoaco provinciaren condaira edo historia* (1847) declaró que «Euscara ill esquero Fueroac ez dira bicico; banan Euscara bici bada, Fueroac piztucu dira» (si el euskera se muere los fueros no sobrevivirán; pero si el euskera ha de vivir, los fueros renacerán) (Madariaga, 2006: 159). En este sentido, no es de extrañar que en 1876 emergiera un movimiento a favor del euskera y la cultura vasca conocido como *Pizkundea*, similar al *Renaixença* catalán y al *Rexurdimento* gallego. Al hilo del espíritu romántico de los idealistas alemanes, la literatura escrita en euskera empezó a considerarse reflejo del alma



besteak beste *Euskal Jaiak* delakoak, 1851ean Antonie d'Abbadiek Iparraldean antolaturiko eta 1879an Hegoaldean izandako Lore Jokoen jarraipena. Era berean, garai horretan denetarik argitalpenek ikusi zuten argia, euskarazko hezkuntza instituzionalizatzeke urratsak egin ziren, Bizkaiko Foru Aldundiak Euskal Hizkuntzako Katedra sortu zuen (1888), eta lehen ikastolak ireki zituzten.

Euskal Jaien babesean, historia eta elezaharra uztartzen zituen euskarazko narratiba garatu zen. Walter Scott eskoziarraren nobelei jarraituz, Francisco Navarro Villosladak, Juan Venancio Araquistainek, José María Goizuetak zein Vicente Aranak gaztelaniaz idatziriko nobela historiko-erromantikoa eredu zuen narratiba horrek. Testuinguru horretan argitaratu zuten atalka, 1898tik aurrera, euskarazko lehen nobela: Domingo Agirrerren *Auñemendiko lorea*. Adalbaldo dukearen emazte den Riktrudis emakume kristauaren historia azaltzen du lanak, kristaua ez den buruzagi euskaldun bat, Portun, atzetik duena.

XIX. mendearen azken hamarkadan euskal politikagintzan eragin handia izango zuen planteamendua agertu zen: euskal nazionalismoa, mugimendu foralistaren lekukoa hartuko zuena. Nazionalismoaren planteamenduetan eragin handia izan zuten XX. mende hasieran jazotako aldatetek eta gertaerek: industrializazioak ekarritako -Bizkaian eta Gipuzkoan batez ere- populazioaren hazkundeak, Partido Socialista Obrero Español-aren agerpenak Bilbon (1879). Alde batetik, industrializazio azkarrak eragindako ekonomiaren egoera ezin hobekia ondorio baikorra izan zuen euskal kulturaren hainbat arlotan, hala nola euskal filologian (Ramón María Azkuek eta Julio Urquijok



rol garrantzitsua jokatu zuten arlo honetan; Urquijok *Revista Internacional de Estudios Vascos* sortu zuen (1907an), musikan, arkeologian zein etnografian (Telesforo Aranzadi, José Miguel Barandiaran). Euskal ikasketak balioztatu zitzakeen unibertsitaterik ez zegoen, ordea. Behar horri erantzuteko asmoz Euskal Ikasketen Lehen Kongresua antolatu zuten,

baita Eusko Ikaskuntza eta Euskaltzaindia sortu ere 1918an. Bestetik, egoera ekonomiko beraren ondorioz euskararen eragin esparrua murriztuz joan zen pixkanaka landa-eremuaren *berezko* ezaugarri bihurtzeraino, hirietan eta industriaguneetan gaztelania nagusituz zihoan bitartean. Zenbait intelektualek, Miguel Unamunok kasu, faktore sozioekonomikoak aintzat hartu ez eta euskararen beharakada azaltzeko orduan, hura mundu modernoaren beharrei aurre egiteko gai ez zela argudiatu zuten. Nazionalismoak ere industrializazioak eragindako polarizazioari (landa-eremua / hiria, euskara / erdara, tradizioa/modernitatea) etekin aterako zion bere modura. Domingo Agirrerren *Kresala* (1906) eta *Garoa* (1912) nobela kostunbristek ezin hobeto islatzen dute nazionalismoaren diskurtsoa, euskal bizimodu jatorraren sinbolo diren kokaguneei (itsasoa eta baserria, hurrenez hurren) kutsagarritzat jotzen diren elementuak (hiria) kontrajartzen zaizkien aldetik. Ildo beretik jo zuten orduko hainbat egileren lanek: José Manuel Etxeitaren *Josecho* (1909) eta *Jayoterrri maïttia* (1910); Ramon Maria Azkueren *Ardi galdua* (1918); Jean

1. Domingo Agirre.



1. Domingo Agirre.

vasca, siendo su objetivo proteger y promover la lengua. Por lo mismo, se empezaron a organizar varios actos literarios como las denominadas *Euskal Jaiak*, recogiendo el testigo de los Lore Jokoak celebrados en 1851 en el País Vasco del Norte de la mano de Antoine d'Abbadie y en 1879 en el País Vasco peninsular. Por otra parte, en ese mismo momento vieron la luz todo tipo de publicaciones, se dieron pasos hacia la institucionalización de la enseñanza en euskera, la Diputación Foral de Bizkaia creó la Cátedra de Lengua Vasca (1888), y las primeras ikastolas abrieron sus puertas.

Bajo el auspicio de los Lore Jokoak empezó a desarrollarse una literatura en euskera que combinó historia y leyenda. Dicha literatura tenía como referente la literatura en castellano de autores como Francisco Navarro Villoslada, Juan Venancio Araquistain, José María Goizueta y Vicente de Arana, la cual a su vez bebió de la novela histórico-romántica elaborada por el autor escocés Walter Scott entre otros. En ese momento, a partir de 1898 concretamente, empezó a publicarse por entregas la primera novela en euskera: *Auñemendiko lorea* de Domingo Agirre. Dicha obra se centra en la historia de Rictrudis, la esposa cristiana del duque Adabaldo, que es cortejada por el jefe vasco no cristiano Portun.

A finales del siglo XIX apareció un planteamiento que tendría gran influencia en el devenir de la política vasca: el nacionalismo vasco, que tomó el testigo del movimiento foralista. En el nacionalismo vasco influyeron varios acontecimientos de comienzos del siglo XX: la industrialización – principalmente en Bizkaia y Gipuzkoa– y el crecimiento de la población, y la creación del Partido Socialista Obrero Español en Bilbao (1879). Por una parte, el impacto positivo que la rápida industrialización tuvo en la economía vasca propició que la cultura vasca floreciera en varios ámbitos, como en el de la filología (R. M. de Azkue y Julio de Urquijo jugaron un papel importante en la misma; Urquijo creó la *Revista Internacional de*

Barbierren *Piarres* (1926-29); Pierre Lhanderen *Mirentxu* (1914) eta *Yolanda* (1921), besteak beste. Aipatzekoak dira orduko zenbait emakumek, hala nola Rosario Artolak, Tene Mujikak, Julene Azpeitiak, Katalina Eleizegik eta Sorne Unzuetak euskal literaturari egindako ekarpena.

36ko gerrak eragin suntsigarria izan zuen euskal letretan. Gerra garaian nobela bakarrak ikusi zuen argia: Tomas Agirre Barrensororen *Uztaro* (1937), gai aldetik hura ere kostunbrista. Domingo Arrutiren *Loretzo* (1937), atalka argitaratua euskarazko lehen egunkarian, *Eguna* (1937), amaitu gabe geratu zen. Gatazkan bizia galdu ez zutenenetatik askok erbestera jo zuten eta desterruan, hain zuzen, euskal literaturak bultzada handia jaso zuen. Penintsulan, errepresioaren ondorioz, zaila zen euskaraz ezer argitaratzea. Erbesteko eragileen artean nabarmentzekoak dira Ekin argitaletxea, 1942an Buenos Airesen sortua, eta *Euzko Gogoa* aldizkaria (1950-1955 / 1956-1959), Jokin Zaitegik zuzendua Guatemalatik, gerora Miarritzera aldatu zena. Ekinen bitartez ikusi zuten argia guda osteko lehen nobelek, Jon Andoni Irazustaren *Joanixio* (1946) eta *Bizia garratza da* (1950), biak ala biak Espainiako gerraren testuinguruan kokatuta. Irazustaren nobelak XX. mende hasierako joeraren jarraipen dira, hots, ideologia esentzialistaren isla dira, tradizioaren eta erlijioaren aldekoak. Maria Jose Olaziregiren aburuz, askozaz berritzaileagoa da Joseba Eizagirreren *Ekaitzpean* (1948), karlisten (nazionalen aldeko) eta nazionalisten (Errepublikaren aldeko) artean zeuden kontraesanak azaltzen dituen aldetik. Aipatzekoa da ere Sebastian Salaberriaren *Neronek tirako nizkin* (1964), gerra lehen pertsonan kontatzen duen lan autobiografikoa.

Martin Ugaldek inork baino hobeto azaldu zuen errepresio politikoak eta deserriak euskal herritar askorengan izan zuen eragin suntsigarria. Egileak berak hiru erbestealdiri aurre egin zien. Ugalderen lanen artean

2. Julene Azpeitia.



nabarmentzekoa da *Itzalleak* (1961) 36ko gerraren eta gerraostearen gogortasuna azaltzen duen ipuin bilduma, eta *Itzulera baten istorioa* (1989) zein *Pedrotxo* (1993) nobelak. Lehenengoak erbestean den euskal familia baten Euskal Herrira itzultzeko ahalegin antzuak azaltzen ditu; bigarrenak, gerrak ekarri zuen giza hondamena eta gerraosteko errepresio frankista ditu aipagai.

Gerraostean Hegoaldean argitaratu zuten lehen nobela Jon Etxaideren *Alos-Torrea* (1950) izan zen, Juan Venancio Aranquistainen «Gau-illa» elezaharrean oinarritua. Etxaiderenak dira ere *Joanak joan* (1955), Pierre Topet Echahun poeta erromantikoaren bizitzan oinarritua, eta *Gorrotoa lege* (1964), Erdi Aroan gertaturiko bandoen arteko gerretan oinarritua. Bestetik, Jose Antonio Loidik euskarazko lehen polizia-nobela idatzi zuen, *Amabost egun Urgainen* (1955).


1950eko hamarkadan euskal literatura jarduera autonomo bihurtu zen Euskal Herriko bizimodu soziokulturaleran, «lege, funtzionamendu mekanismo eta helburu propioekin, bestelako jarduera linguistiko edo kulturaletik aparte» (Lasagabaster 1985: 427). Euskal literaturak Europan une horretan nagusi ziren literatur mugimenduekin bat egin zuen, eta bat-egite horren adierazgarri izan zen itzulpenek literatur sisteman piztu zuten interesa. Aipatu hamarkadan euskal

nobelak kostunbrismotik joera existentzialetara jauzi egin zuen Jose Luis Alvarez Enparantza *Txillardegiren Leturiariaren egunkari ezkutua* (1957) lanaren eskutik. *La Nausée*-ko (1938) Antoine Roquentinen antzera,

Leturiak, nobelako heroi gatazkatsua, giza existentziaren zentzugabekeriaz idatziko du bere egunerokoan, eta existentzialismoaren ardatz nagusien gainean -bakardadea, porrota, heriotza, erabakitzeak eragiten duen ezinegona-gogoeta egingo du. Txillardegiren hurrengo nobelek ere, *Peru Leartzako* (1960) eta *Elsa Scheelen* (1969), existentzialismoaren bidetik jo zuten.

Txillardegiren belaunaldi berekoa dugu Jon Mirande, eta hark bezala modernitatearen nondik norakoak azaldu zituen bere obra poetikoan zein bere narratiban, hala nola *Haur besoetakoa* (1970) nobela psikologikoan, 1959an idatzia eta 1970ean argitaratua, zein

bera hil ostean kaleratu zuten *Gauaz parke batean* (1984) bildumako narrazioetan. *Haur besoetakoa* nobelaren gaiak, gizon heldu baten eta bere haur besoetako gaztearen arteko harremanak, Vladimir Nabokoven Lolita dakar gogora. Paradoxikoki, Mirandek ez zuen errusiarraren nobela irakurria *Haur besoetakoa* idatzi zuenean. Eduardo Gil Berak nobelaren gaztelaniazko itzulpenari idatzitako hitzaurrean esaten duen bezala,



3. Jose Luis Alvarez Enparantza *Txillardegiren*. Durangoko Azoka, 2007.





(a favor de los rebeldes) y el de los nacionalistas (a favor de la República). Cabe mencionar *Neronek tirako nizkin* (1964) de Sebastián Salaberria, obra autobiográfica que narra la guerra en primera persona.

Martín Ugalde supo reflejar mejor que nadie el efecto devastador que la represión política y el exilio tuvieron en muchos ciudadanos vascos. El propio autor tuvo que hacer frente a tres exilios. Entre las obras de Ugalde son de destacar el libro de narraciones *Illtzalleak* (1961) que refleja la dureza de la guerra y la posguerra, así como las novelas *Itzulera baten istorioa* (1989) y *Pedrotxo* (1993). La primera muestra los esfuerzos inútiles de una familia vasca por regresar al País Vasco; la segunda analiza la destrucción humana causada por la guerra y la represión franquista de la posguerra.

Tras la guerra, la primera novela en ver la luz en el País Vasco peninsular fue *Alos-Torrea* (1950) de Jon Etxaide, basada en la leyenda «Gau-illa» de Juan Venancio Araquistain. Al mismo autor debemos *Joanak joan* (1955), sobre la vida del poeta romántico Pierre Topet Echahun, y *Gorrotoa lege* (1964), reflejo de las guerras de bandos acontecidas en la Edad Media en el País Vasco peninsular. Por su parte, Jose Antonio Loidi produjo la primera novela policiaca en euskera, *Amabost egun Urgain'en* (1955).

En la década de 1950 la literatura vasca pasó a ser una actividad autónoma dentro del ámbito socio-cultural del País Vasco, «con leyes, mecanismos de funcionamiento y objetivos propios, frente a otras actividades lingüísticas y culturales» (Lasagabaster, 1985: 427). La literatura vasca se hizo eco de los principales movimientos literarios europeos del momento y, como resultado, la traducción al euskera de obras escritas en otras lenguas cobró un gran interés en el sistema literario vasco. En esta década, y de la mano de *Leturiaren egunkari ezkutua* (1957) [*Leturia*, 1986] de Jose Luis Álvarez Enparantza *Txillardegi*, la novela vasca dejó el costumbrismo a un lado para dar paso al existencialismo. Al igual que el Antoine Roquentin de *La Nausée* (1938), *Leturia*, el conflictivo héroe de la novela, escribe en su diario sobre el absurdo de la existencia humana, y

3. Jose Luis Alvarez Enparantza *Txillardegi*. Feria del Libro y Disco de Durango (Bizkaia), 2007.

Mirandek Teokrito zein Virgilioren garaitik Mendebaldeko tradizioaren parte zen literatur motibo bati besterik ez zion heldu.

Nazioarteari begira, 1960ko hamarkadak giza mugimendu berrien agerpena eta Hirugarren Munduko herrialdeetatik bultzaturiko iraultza ereduaren hedapena ekarri zuen. Hego Euskal Herrian, nazionalismoaren barruan EAJK eta ETAK lortu zuten nagusitasuna aipatu beharko genuke (Chueca 2000: 398). Bestetik, herrialdearen hazkunde ekonomikoa eta industrialia indartuz joan zen, eta horrek kultur proposamen berriak martxan jartzea ahalbidetu zuen. Proposamenok kultura eta arte modernoa bultzatzea zuten helburu, eta haien sustatzaileetako bi izan ziren Gabriel Aresti poeta eta Jorge Oteiza eskultorea. Oteizak Gaur, Danok, Emen eta Orain taldeetan bildutako beste artistekin batera, Euskal Eskola sortu zuen 1966an. Aresti eta Oteizarekin batera, aipatzekoa da Koldo Mitxelena hizkuntzalari. Mitxelenak Euskaltzaindiak bultzaturiko euskara batua sortzearen prozesua gidatu zuen. Bestetik, hamarkada berean, lehen Euskal Liburu Azoka antolatu zuten Durangon (1965), eta euskal kantu modernoa bultzatu zuen Ez Dok Amairu (1965-1972) taldeak orduan hasi zuen bere ibilbidea.

Literaturaren alorrean, euskarazko liburuen ekoizpenak bultzada handia jaso zuen argitaletxe agertu berrien eskutik: Gordailu (1969), Lur (1969), Etor (1970), Iker (1972), Gero (1973), Elkar (1973). Nobelen kopurua handitu egin zen (aurreko hamarkadan argitaraturikoaren halako bi), eta lehen aldiz euskarazko nobelak garaiko irakurleen aurreikuspenekin bat egin zuen. Urte horietan *nobela soziala* agertu zen, besteak beste Xabier Gereñok, Txomin Peillenek eta Xabier Amurizak landutakoa.

Nobela sozialarekin batera, bestelako nobela eredu bat agertu zen euskal letren panoraman, alegorikotzat jo genezakeen nobela mota, orduko zentsurari iskin egin nahi ziona. Nobela mota horrek Hego Amerikako errealismo magikoaren ekarpenak bere egin zituen. Ordukoa da Anjel Lertxundiren lehen lana, *Hunik arrats artean* (1970) ipuin bilduma. Bertan lehen aldiz agertu zen Urturi herria (Euskal Herriaren sinbolo), *Ajea du Urturik* (1971) nobelaren kokagune izango zena. Azken horretan Urturin jazotako uholdeak herritarrengan sorturiko ezinegona azaltzen zaigu. Behin eta berriro agertzen den armiarma sarearen irudia diktadura garaian euskal herritarrek bizi zuten jazarpenaren adierazgarri da. Errealismo magikoaren oihartzuna nabarmena da ere Mikel Zarateren *Haurgintza minetan* (1973) nobela alegorikoan zein Joan Mari Irigoien *Oilarren promesa*

4. Durangoko Azoka, 2015.

5. Ez Dok Amairuko zenbait kide Atahualpa Yupanqui (ezkerretik hirugarrena) eta Paco Ibáñez (zortzigarrena) kantariekin: Joxean Artze (ezkerretik bigarrena), Benito Lertxundi (laugarrena), Mikel Laboa (seigarrena), Jose Angel Irigaray (zazpigarrena), Xabier Lete (makurtuta ezkerretik lehenengoa) eta Lourdes Iriondo. 1960ko hamarkada.





4. Feria del Libro y Disco de Durango (Bizkaia), 2015.
5. Diversos miembros del grupo Ez Dok Amairu junto al cantante Atahualpa Yupanqui (tercero por la izquierda) y Paco Ibáñez (octavo): Joxean Artze (segundo por la izquierda), Benito Lertxundi (cuarto), Mikel Laboa (sexto), José Ángel Irigaray (séptimo), Xabier Lete (agachado, el primero por la izquierda) y Lourdes Iriondo. Década de 1960.

reflexiona sobre los temas principales del existencialismo: la soledad, el fracaso, la muerte, la angustia que provoca la toma de decisiones. También debatirá sobre la existencia de Dios, cosa que Leturia no niega. Las siguientes novelas de Txillardegui, *Peru Leartzako* (1960) y *Elsa Scheelen* (1969), también optaron por el existencialismo.

Jon Mirande perteneció a la misma generación de Txillardegui, y al igual que éste analizó los derroteros de la modernidad tanto en su obra poética como en su narrativa. A esta última pertenecen la novela psicológica *Haur besoetakoa* (1970) [*La ahijada*, 1991], escrita en 1959 y publicada en 1970, así como el libro de narraciones *Gauaz parke batean* (1984) publicado tras la muerte del autor. El tema central de *Haur besoetakoa*, la relación entre un hombre maduro y su joven ahijada, trae a la memoria la novela *Lolita* de Vladimir Nabokov. Paradójicamente, Mirande no había leído la novela del autor ruso cuando escribió *Haur besoetakoa*. Según afirma Eduardo Gil Bera en el prólogo a la traducción al castellano de la novela, Mirande simplemente se hizo eco de un motivo que ha sido parte de la tradición occidental desde de la época de Teócrito y Virgilio.

La década de 1960, a nivel internacional, fue testigo de la aparición de nuevos movimientos sociales y revoluciones impulsados desde países del denominado Tercer Mundo. En el País Vasco peninsular, es de destacar la popularidad obtenida por el Partido Nacionalista Vasco (PNV) y ETA dentro del mundo nacionalista (Chueca 2000: 398). Por otra parte, el continuo crecimiento económico e industrial hizo posible que nuevas propuestas culturales se pusieran en marcha. Dichas propuestas tenían como objetivo impulsar la cultura y el arte moderno vasco. Dos de las figuras más relevantes de esta época fueron el poeta bilbaíno Gabriel Aresti y el escultor Jorge Oteiza. Oteiza, junto a otros artistas reunidos en torno a los grupos Gaur, Danok, Emen y Orain, creó la Escuela Vasca en 1966. Otro nombre a destacar es el del lingüista Koldo Mitxelena. Mitxelena condujo el proceso impulsado por Euskaltzaindia para la creación del euskera batua o unificado. No hay que olvidar que en esta misma década tuvo lugar, entre otros, la primera Feria del Libro Vasco en Durango (Bizkaia), en 1965. Asimismo, el grupo Ez Dok Amairu (1965-1972), impulsor de la nueva canción vasca, inicio su andadura por estas fechas.

(1976) lanean. Biek ala biek Hego Euskal Herriak bizi zuen errepresio politikoa salatzen dute.

1969an argitaraturiko Ramon Saizarbitoriaren *Egunero hasten delako* nobelak eredu esperimentalistak ekarri zituen euskal literaturara. Tartekatzen doazen bi plano narratibo independentetan antolatua, *Egunero hasten delakok* abortatu nahi duen ikasle gazte baten istorioa zein tren geltoki batean eta telefono zentral batean dauden pertsonaia batzuen artean gertatzen den elkarrizketa azaltzen ditu. Saizarbitoriaren bigarren nobela ere, *100 metro* (1976), hainbat planotan antolatuta dago, baina kasu honetan zinema teknikak jarraitzen ditu egileak gertaerak azaltzeko. Hari nagusiak ETako kide batek Donostiako Konstituzio plazan poliziak tiroz hil aurretik egindako azken ehun metroak azaltzen ditu. Nobelak Francoren diktaduraren azken urteetako giroa islatzen du, errepresio handiko garaia hura. Nouveau Roman-aren teknikari jarraituz osatu zuen Saizarbitoriak bere hirugarren nobela, *Ene Jesus* (1976).

Saizarbitoriarekin batera, Bernardo Atxaga eta Koldo Izagirre eredu narratibo esperimentalen sustatzaile handiak izan ziren. Atxagak eta Izagirrek *Panpina ustela* aldizkaria argitaratu zuten 1975ean. Bertan azaltzen zen manifestuan, «Ez dezagula konposturarik gal, halere», egileek euskal literaturaren egoera kritikatu eta errotiko berrikuntza prozesua proposatzen zuten. Aldaketa horren adibide dira Izagirreren *Zergatik bai* (1976) eta Atxagaren *Ziutateaz* (1976) testu neoabangoardistak. Lanok 1970eko hamarkadako esperimentalismoen garaia itxi egin zuten.

1978an, Espainiako Konstituzioa onartua izan ostean, euskarak gaztelaniarekin batera ko-ofizialtasun egoera lortu zuen penintsulako bi autonomia-erkidegoetan, hots, Euskal Autonomia Erkidegoan eta Nafarroako Foru Komunitatean. Horrek hezkuntza eredu elebidunak eskaintzea zein euskarazko argitalpeni zuzenduriko dirulaguntza deialdiak zabaltzea posible egin zuen. Bestetik, Euskal Filologia unibertsitate ikasketak sortu zituzten 1981ean, literatura-ikerketak akademikoari bultzada

6. Ramon Saizarbitoria.
7. Anjel Lertxundi eta Inazio Mujika Iraola Gutun Zuria jaialdian, Bilbon, 2012an.





6. Ramon Saizarbitoria.
7. Anjel Lertxundi e Inazio Mujika Iraola en el Festival Gutun Zuria, Bilbao, 2012.

En cuanto a la literatura, la producción de libros en euskera recibió un fuerte empujón gracias a la labor de nuevas editoriales: Gordailu (1969), Lur (1969), Etor (1970), Iker (1972), Gero (1973), Elkar (1973). Dentro de esa producción, el número de novelas fue notable (se publicaron el doble de títulos que en la década anterior), y por primera vez la novela en euskera cumplió con las expectativas de los lectores. En esta época aparecieron las primeras novelas sociales de la mano de autores como Xabier Gereño, Txomin Peillen y Xabier Amuriza.

Junto a la novela social, otro género hizo aparición en la escena literaria vasca. Se trataba de un tipo de novela que podríamos denominar alegórica y que quiso zafarse de la censura. Este tipo de novela hizo suyas las principales características del realismo mágico sudamericano. De esta época data la primera obra de Anjel Lertxundi, el libro de narraciones *Hunik arrats artean* (1970). En el mismo apareció por primera vez el pueblo alegórico Urtubi (claro símbolo del País Vasco), en el cual se desarrollaría la acción de la novela del mismo autor *Ajea du Urturik* (1971). *Ajea du Urturik* muestra la angustia de los ciudadanos de Urturi tras unas inundaciones. En la novela aparece la imagen recurrente de una tela de araña, símbolo de la represión que estaban padeciendo los ciudadanos vascos. La influencia del realismo mágico es notable también en la novela alegórica *Haugintza minetan* (1973) de Mikel Zarate y en *Oilarraren promesa* (1976) de Joan Mari Irigoien. Ambos trabajos denuncian la represión política en el País Vasco peninsular.

Egunero hasten delako de Ramon Saizarbitoria, publicada en 1969, introdujo modelos experimentalistas en la literatura vasca. Organizada en dos planos narrativos independientes que se van alternando, la novela cuenta la historia de una joven estudiante que quiere abortar y la conversación que tiene lugar entre una estación de ferrocarril y una central telefónica entre un personaje extraño y uno o varios interlocutores anónimos. En su segunda novela, *100 metro* (1976) [*100 metros*, 1979], el autor también recurre a diferentes planos narrativos aunque en esta

handia emanez. 1980ko hamarkadan bertan sortu zituzten Euskal Idazleen Elkarte (1982), Euskal Itzultzaile, Zuzentzaile eta Interpreteen Elkarte (1987) zein euskarazko haur- eta gazte-literatura sustatzen duen Galtzagorri Elkarte (1990).

Garai honetan euskal literaturak lorturiko autonomiaren adibiderik onena da Jose Irazu Garmendia, goitizenez Bernardo Atxaga. Atxaga euskal idazlerik sarituena eta itzuliena izan ez ezik, idazketara profesionalki dedikatzen den egile bakarrenetarikoa dugu. «Camilo Lizardi erretore jaunaren etxean aurkitutako gutunaren azalpena» (1982) narrazioan azalduko Obaba geografia imajinarioak toki garrantzitsua betetzen du Atxagaren obran. Obabak Bizkaiko sehaska kantu batean du jatorria, eta espazio horretan jazotzen dira *Sugeak txoriari begiratzan dionean* (1984), *Bi letter jaso nituen oso denbora gutxian* (1984) eta *Bi anai* (1985) nobela laburretan zein *Obabakoak* (1988) bilduma ezaguneko narrazioetan azaltzen diren gertaerak. Natura eta kulturaren kontrajartzeak baldintzatzen du Obaban jazotakoa. Berez, mundu aurremodernoa da, non *depresioa* edo *eskizofrenia* bezalako hitzak existitzen ez diren; animaliengana jo egiten dute herritarrek ulertu ezin dituzten gertaerak azaltzeko. *Obabakoak* zehazki harremana duten narrazioen bilduma da. Ipuin guztietan Obabako paisaia afektiboa mugarik gabeko espazio birtuala da, non narraziolearen memoriak istorioak harilkatzen doan. Istorio hauek gogoeta metanarritiboa eta literatura fantastikoko estrategiak batzen dituzte. Bidaia fantastiko hori, orenen gainetik, bidaia literario bat da, bidaia intertestuala. *Obabakoak* ipuingintzaren maisuak omentzen ditu, dela generoari buruzko teoriak idatzi duten horiek (Edgar Allan Poe, Horacio Quiroga edo Julio Cortazar), dela XIX. eta XX. mendeko idazleak.

Gazteei zuzenduriko *Behi euskaldun baten memoriak* (1991) nobelarekin errealismora jauzi egin zuen Atxagak. Pertsonaia nagusiak, Kantek akuilaturiko *sapere aude* leloa bere egiten duen Mo izeneko behiak, gerraostearen gogortasuna Hego Euskal Herrian azaltzen digu. Atxagaren hurrengo nobelek, *Gizona bere bakardadean* (1993), *Zeru horiek* (1995) eta *Soinujolearen semea*

8. Bernardo Atxaga.













obra es más evidente el uso de técnicas cinematográficas a la hora de relatar los acontecimientos. La historia principal narra los últimos cien metros de un activista de ETA antes de ser abatido por la policía en la Plaza de la Constitución de San Sebastián. La novela describe el ambiente de los últimos años de la dictadura franquista, un período de gran represión política. Saizarbitoria compuso su tercera novela, *Ene Jesus* (1976), valiéndose de las técnicas de la *Nouveau Roman*.

Bernardo Atxaga y Koldo Izagirre fueron, junto a Saizarbitoria, grandes impulsores de modelos experimentales. En 1975 Atxaga e Izagirre publicaron la revista *Panpina ustela*. En el manifiesto que hizo público la misma, «Ez dezagula konposturarik gal, halere» (no perdamos la compostura, de todas maneras), los autores criticaban la situación de la literatura vasca y abogaban por un cambio radical. Ejemplos de ese cambio son los textos neovanguardistas *Zergatik bai* (1976) de Izagirre y *Ziutateaz* (1976) de Atxaga. Ambos trabajos cerraron el capítulo experimentalista de la década de 1970.

Tras la ratificación de la Constitución española en 1978, el euskera pasó a ser co-oficial junto al castellano en la Comunidad Autónoma Vasca y en la Comunidad Foral de Navarra. Ello posibilitó que a nivel educativo se pudieran ofrecer modelos bilingües y que se crearan ayudas a la producción en euskera. Por otra parte, en 1981 se crearon los estudios universitarios de Filología Vasca, dando un gran impulso a la investigación literaria a nivel académico. La década de 1980 fue testigo de la creación de la Asociación de Escritores (1982), de la Asociación de Traductores, Correctores e Intérpretes Vascos (1987) así como de la Asociación Galtzagorri (1990) dedicada a la promoción de la literatura infantil y juvenil en lengua vasca.

8. Bernardo Atxaga.

Jose Irazu Garmendia, conocido como Bernardo Atxaga es, sin duda, el mejor ejemplo de la autonomía que la literatura en euskera consiguió a partir de la década de 1980. Además de ser el autor vasco más premiado y traducido, Atxaga es uno de los pocos escritores en lengua vasca que se dedica profesionalmente a la escritura. La geografía imaginaria Obaba, dada a conocer mediante la narración «Camilo Lizardi erretore jaunaren etxean aurkitutako gutunaren azalpena» (1982), ocupa un lugar estelar en la obra de Atxaga. Obaba debe su origen a una canción de cuna vizcaína, y en este espacio se desarrollan las historias recogidas en las novelas breves *Sugeak txoriari begiratzen diorean* (1984) [*Cuando la serpiente mira al pájaro*, 1989], *Bi letter jaso nituen oso denbora gutxian* (1984) [*Dos letters*, 1990], *Bi anai* (1985) [*Dos hermanos*, 1995] y en el conocido libro de narraciones *Obabakoak* (1988) [*Obabakoak*, 1989]. La contraposición de la naturaleza a la cultura condiciona lo ocurrido en Obaba. Se trata de un mundo pre-moderno en el que no hay lugar para conceptos como el de *depresión* o *esquizofrenia*; los lugareños recurren a los animales cuando quieren entender algo que va más allá de su razón. *Obabakoak* es, en concreto, una colección de narraciones que guardan relación unas con otras. En todas ellas el paisaje afectivo de Obaba es un espacio virtual ilimitado en el que la memoria del narrador va tejiendo las historias. Estas historias aúnan la reflexión metanarrativa y las estrategias propias de la literatura fantástica. Este viaje fantástico es, ante todo, un viaje literario, intertextual. *Obabakoak* rinde homenaje a los maestros del cuento, tanto a los que escribieron sobre la teoría del género (Edgar Allan Poe, Horacio Quiroga o Julio Cortázar), como a los autores de los siglos XIX y XX.




Con la novela juvenil *Behi euskaldun baten memoriak* (1991) [*Memorias de una vaca*, 1992] Atxaga dio el salto al realismo. El personaje principal, la vaca Mo que hace suyo la expresión *sapere aude* de Kant, nos explica la dureza de la posguerra en el País Vasco peninsular. Las siguientes novelas del autor, *Gizona bere bakardadean* (1993) [*El hombre solo*, 1994], *Zeru horiek* (1995) [*Esos cielos*, 1997] y *Soinujolearen semea* (2003) [*El hijo del acordeonista*, 2004], ofrecen un acercamiento ético al conflicto político vasco. Las tres novelas cuentan como protagonista a ex-miembros de ETA. En el caso de *Gizona bere bakardadean* se trata de Carlos, torturado por sus pasadas acciones armadas; en el caso *Zeru horiek* nos encontramos con Irene, condenada a la soledad y a la marginación. En cuanto a

Soinujolearen semea, el eje de la novela son la represión franquista y la lucha armada de ETA, en concreto el bombardeo de Gernika llevado a cabo por la Legión Cóndor el 26 de abril de 1937. A lo largo de la novela David da cuenta de sus memorias, ahondando en los dolorosos episodios acontecidos durante su infancia cuando se encontraba en Obaba: la Guerra Civil y la posguerra. La Obaba de la novela no es, a diferencia de la aparecida en *Obabakoak*, un lugar en el que ocurren sucesos fantásticos que escapan a la razón sino una arcadia lejana. Ahí se encuentra Iruain, localidad natal del protagonista, rodeada de bucólicos valles verdes, la cual guarda poca relación con el segundo espacio utópico de la novela, Stoneham Ranch (Tulare County, California). La ilusión utópica que en un principio provoca Stoneham Ranch queda anulada una vez sale a la luz la relación entre ese lugar y la Guerra Civil. En verdad, Stoneham Fields (Gran Bretaña) se convirtió en lugar de exilio para los 4.000 niños vascos que el 21 de mayo de 1937 huyeron de la guerra en el barco Habana. En ese sentido, en *Soinujolearen semea*, América, lejos de ser la arcadia que desde el Renacimiento ha inspirado a todo tipo de viajeros y artistas, se convierte en destino de un vasco que decide exiliarse voluntariamente por razones políticas.

La siguiente novela de Atxaga, *Zazpi etxe Frantzian* (2008) [*Siete casas en Francia*, 2009], tomó un rumbo diferente. Dejando a un lado a Obaba y a la memoria histórica vasca, la novela se centra en el proceso colonizador del Congo. Pese a ser éste un tema bastante conocido en la literatura, Atxaga va un paso más allá a la hora de describir el colonialismo y su crueldad ilimitada. La novela de Atxaga no es una novela de aventuras, género al que los colonizadores recurrieron para justificar sus crímenes, sino una parodia de la misma mediante la cual se nos muestran los puntos débiles de la ideología imperialista hegemónica. *Nevadako egunak* (2013) [*Días de Nevada*, 2014], ganadora del premio Euskadi de literatura, es una mezcla de géneros de ficción y no ficción, mientras que *Etxeak eta hilobiak* (2019) [*Casas y tumbas*, 2020] resume el universo literario iniciado por *Obabakoak*.

Las guerras carlistas del siglo XIX y especialmente la Guerra Civil (1936-1939) son el eje central de muchas de las novelas en euskera publicadas durante las décadas de 1980 y 1990. Entre ellas cabe destacar los siguientes títulos: *Abuztuaren 15eko bazkalondoa* (1979) de Joxe Austin



**BEHI EUSKALDUN
BATEN MEMORIAK**

PANELA

29.
aparrila

(2003), euskal gatazka politikora hurrerapen etikoa eskaintzen dute. Hiru nobelek etakide ohiak dituzte protagonista; ekintza terroristen memoriak torturaturiko Carlos azaltzen zaigu *Gizona bere bakardadean* eta bere militantzia politikoagatik bakardadera eta bazterketara bizitzera kondenaturiko Irene Zeru *horieken*. Bien bitartean, frankismo garaiko errepresioa eta ETaren jarduera armatua ditu ardatz *Soinujolearen semea* nobelak. Bertan Davidek bere memoriak biltzen ditu, Obaba kokaleku izan zuen bere haurtzaroaren eta 36ko gerran zein gerraostean jazo ziren gertaera mingarrietan sakonduz. Nobelan azaltzen zaigun Obaba ez da, *Obabakoaken* bezala, arrazoiaren bidez nekez azal daitezkeen gertaera fantastikoen kokaleku, baizik eta arkadia urrun bat. Hor dago Iruain, protagonistaren jaioterria, haran berde eta bukoliko batean kokatua, nobelako bigarren espazio utopikoarekin, Stoneham Ranch (Tulare County, Kalifornia), batere zerikusirik ez duena. Stoneham Ranchek pizturiko utopiaren lilura bertan behera geratzen da hasieratik leku horren eta Espainiako gerrarekin dagoen loturaren bitartez. Izan ere, Stoneham Fields (Britainia Handia) 1937ko maiatzaren 21ean 36ko gerratik Habana ontzian ihes egin zuten 4.000 euskal umeren erbeste-leku izan zen. Ildo horretan, Amerika, denetariko bidaiariak eta artistak inspiratu dituen arkadia izatetik urrun, arrazoi politikoak tarteko bere borondatez erbesteratzen den euskaldun baten helmuga da *Soinujolearen semea*.

Atxagaren hurrengo lanak, *Zazpi etxe Frantzian* (2008), garai kolonialeko Kongo du ardatz. Kongoren kolonizazio prozesuaren gaia literaturan arrotza ez bada ere, Atxagak koska bat estuago egiten du kolonialismoa eta haren krudeltasun mugagabea deskribatzeko orduan. Atxagaren nobela ez da abentura nobela bat, hots, kolonizatzaileek beren krimenak justifikatzeko erabili zuten generoa, baizik eta haren parodia zeinaren bitartez ideologia inperialista eta hegemonikoaren puntu ahulak erakusten zaizkigun. Euskadi saria jasotako *Nevadako egunak* (2013) hainbat genero nahasten ditu eta *Etxeak eta hilobiak* (2019) nobelak, berriz, *Obabakoakekin* abiatutako unibertso literarioa laburbiltzen du.



XIX. mendeko gerra karlistak eta, bereziki, 36ko gerra (1936-1939) 1980 eta 1990eko hamarkadetan euskaraz argitaraturiko nobelen askoren ardatz dira. Adibide moduan aipa genitzake Joxe Austin Arrietaren *Abuztuaren 15eko bazkalondoa* (1979); Koldo Izagirreraren *Euskadi merezi zuten* (1984); Inazio Mujika Iraolaren *Azukrea belazeetan* (1987), *Gerezi denbora* (1998) eta *Sagarrak Euzkadin* (2007); Joxemari Iturraldearen *Izua hemen* (1990) eta *Kilkerra eta roulottea* (1997); Luis Mari Mujikaren Loitzu herrian udapartean (1993); Patxi Zabaletaren *Badena dena da* (1995); Edorta Jimenezen *Azken fusila* (1994) eta *Kilkerren hotsak*

(2003); Patri Urkizuren *Zoazte hemendik!* (1995); Ramon Saizarbitoriaren *Bihotz bi. Gerrako kronikak* (1996) eta *Gorde nazazu lurpean* (2000); Andoni Egañaren *Pausoa noiz luzatu* (1998); Aingeru Epaltzaren *Tigre ehizan* (1996); eta Juan Luis Zabalaren *Agur, Euzkadi* (2000).

Bere lehen lanak 1970eko ildo berritzaile eta experimentalari lotuta egon arren, Espainiako gerra eta haren ondorio mingarriak oso presente daude Koldo Izagirreraren lanetan. Horren adibide da *Euskadi merezi zuten* (1984)

9. Koldo Izagirre.



Arrieta; *Euzkadi merezi zuten* (1984) [*Euzkadi merezi zuten*, 1995] de Koldo Izagirre; *Azukrea belazeetan* (1987), *Gerezi denbora* (1998) y *Sagararak Euzkadin* (2007) de Inazio Mujika Iraola; *Izua hemen* (1990) y *Kilkerra eta roulottea* (1997) de Joxemari Iturralde; *Loitzu herrian udapartean* (1993) de Luis Mari Mujika; *Badena dena da* (1995) de Patxi Zabaleta; *Azken fusila* (1994) y *Kilkerren hotsak* (2003) de Edorta Jimenez; *Zoazte hemendik!* (1995) de Patri Urkizu; *Bihotz bi. Gerrako kronikak* (1996) [*Amor y guerra*, 1999] y *Gorde nazazu lurpean* (2000) [*Guárdame bajo tierra*, 2002] de Ramon Saizarbitoria; *Pausoa noiz luzatu* (1998) de Andoni Egaña; *Tigre ehizan* (1996) de Aingeru Epaltza; y *Agur, Euzkadi* (2000) de Juan Luis Zabala.

Pese a que el inicio de su trayectoria literaria se haya vinculado a las corrientes renovadoras y experimentalistas de la década de 1970, la Guerra Civil y sus dolorosas consecuencias están muy presentes en las obras de Koldo Izagirre. Prueba de ello es su novela realista *Euzkadi merezi zuten* (1984). En *Metxa esaten dioten agirretar baten ibili herrenak* (1991) [*Malandanzas de un Aguirre llamado Mecha*, 1997], a través de catorce narraciones llenas de humor e ironía, el autor narra las alegrías y tristezas un veterano de la guerra, el obstinado Nikola de Agirre *Metxa*. *Metxa* protagonizó la siguiente novela de Izagirre, *Agirre zaharraren kartzelaldi berriak* (1999) [*Nuevas prisiones del viejo Aguirre*, 2001], en la que se da cuenta de la voluntaria condena del viejo *gudari*. La Guerra Civil y sus consecuencias se hallan presentes también en sus libros de narraciones *Sua nahi, Mr. Churchill?* (2005) y *Franco hil zuten egunak* (2016).

Ramon Saizarbitoria ha declarado que para él escribir es una lucha contra del olvido; escribe porque, al igual que su admirado Samuel Beckett, cuenta con una memoria precaria (Olaziregi 2009b). Por ello la memoria está muy presente en su obra. Con la frase «la memoria es un plato roto», frase que el autor pone en boca del escritor Claude Simon, da comienzo la novela *Hamaika pauso* [*Los pasos incontables*, 1998]. Basada en la agonía y fusilamiento de Daniel Zabalegi en 1975, la novela da cuenta del proceso de escritura de la novela titulada a su vez *Hamaika pauso* que Iñaki Abaitua está componiendo. La historia comienza en 1973 y finaliza en 1984, después de que los comandos autónomos asesinaran al senador del PSOE Enrique Casas. Según transcurre la narración, las biografías de Zabalegi y Abaitua se irán entrelazando. Abaitua, obsesionado con la muerte, la soledad y la

nobela errealista. *Metxa esaten dioten agirretar baten ibili herrenak* (1997) liburuan, umorez eta ironiaz beteriko hamalau istorioren bitartez, egileak 36ko gerran parte hartu zuen Nikola de Agirre *Metxa* agure burugogorraren poz eta tristeziak azaltzen ditu. *Metxa* Izagirreren hurrengo nobelan ere agertu zen, *Agirre zaharraren kartzelaldi berriak* (1999), gudariaren borondatezko kartzelaldia azaltzeko. Gerra eta haren ondorioak dituzte ardatz egilearen *Sua nahi, Mr. Churchill?* (2005) eta *Franco hil zuten egunak* (2016) narrazio bildumek ere.

Ramon Saizarbitoriak adierazi du idaztea berarentzat ahanzturaren kontrako borroka dela; idatzi egiten duela hainbeste miresten duen Samuel Beckettek bezala oroimen kaskarra duelako (Olaziregi 2009b). Horregatik, oroimena oso presente dago bere obran. «Oroimena plater hautsia da», egileak Claude Simon idazlearen ahotan jartzen duen esaldiak abian jartzen du *Hamaika pauso* nobela. 1975ean jazotako Daniel Zabalegiren agonia eta fusilamenduan oinarrituta Iñaki Abaitua osatzen ari den «Hamaika pauso» izeneko nobelaren idazketa-prozesua azaltzen du liburuak. Istoria 1973an hasten da eta 1984an bukatu, komando autonomoek Enrique Casas PSOeko senataria hil ostean. Narrazioak aurrera joan ahala, Zabalegi eta Abaituaren biografiek bat egingo dute, eta heriotza, bakardadea eta giza ezintasunarekin obsesionaturiko Abaituak bere buruaz beste egingo du. *Hamaika pauson* Saizarbitoria esatera datorkiguna zera da, iragana berriro osa daitekeela historiografia ofizialak azaldu ez duena, hots, euskal gatazkak eragin duen sufrimendu indibiduala eta kolektiboa kontatzeko helburu etikoarekin.

Bihotz bi. Gerrako kronikak (1996) nobelaren kasuan, Saizarbitoriak narratzailearen eta bere emazte Floraren bikote-harremanaren haustura azaltzen du. Nobela hasieran narratzaileak aitortzen du emaztea hil egin duela, sukaldeko leihotik botata. Une horretatik aurrera, denboran atzera egingo du kontakizunak, eta narratzaileak hilketa burutzeko jarraitu zituen urratsak eta *gerra* domestikoaren gertaera esanguratsuenak azalduko ditu. Gerra domestikoarekin batera, beste gerra bat du aipagai nobelak, 36ko gerra, bikoteak sagardotegi batean gudari zahar batzuekin igaroko dituzten saioetan gogora ekarria. Gudari zaharrak, kontrako bando eta ideologietakoak gerra garaian, arratsaldero elkartzen dira eszena berberak gogoratzeko. Erreferentzia hauek guztiek agerian uzten dute gertaera beraren azpian milaka istorio daudela eta iragana bisitatzea ekintza subjektiboa dela.

Gorde nazazu lurpean (2000) liburua bost nobela laburrek osaturik dago: *Gudari zaharraren gerra galdua*; *Rossetti-ren obsesioa*; *Bi bihotz, hilobi bat*; *Marcel Martinen aitatasun ukatua* eta *Asaba zaharren baratza*. Bost lanek, modu batean ala bestean, euskal nazionalismoaren fantasiek eragin duten atrofia afektiboari egiten diote aipamen. *Martutene* (2012) eta *Lili eta biok* (2015) nobeletan, berriz, gerraren traumak belaunaldi ezberdinetan duen eragina aztertzen du Saizarbitoriak.

36ko gerrarekin batera ETArekin indarkeriari buruzko nobelen kopuruak gora egin zuen 1980 eta 1990ko hamarkadetan. Aipatzekoa da 1980eko hamarkadan ETArekin jarduera handitu egin zela (1987an Hipercor supermerkatuan jazotakoa




incapacidad humana, termina por suicidarse. En esta novela Saizarbitoria nos viene a decir que se puede volver a construir el pasado para mostrar, con un objetivo ético, lo que la historiografía oficial ha ocultado, es decir, el sufrimiento que el conflicto político vasco ha causado a nivel individual y colectivo.

En el caso de la novela *Bihotz bi. Gerrako kronikak* (1996) [*Amor y guerra*, 1999], Saizarbitoria muestra la desintegración de la relación conyugal entre el narrador de la historia y su esposa Flora. Al comienzo de la novela el narrador confiesa que ha matado a su mujer tirándola por la ventana. A partir de ese momento, la narración hace atrás en el tiempo para relatar los acontecimientos que rodearon al crimen, señalando los episodios más relevantes de la guerra doméstica. Aparte de la doméstica, la novela menciona otra guerra, la civil, traída a la memoria por unos viejos *gudaris* en las tertulias a las que la pareja asiste en una sidrería. Los *gudaris*, de bandos e ideologías contrarias durante la contienda, se juntan todas las tardes para recordar las mismas escenas. Todas estas referencias dejan entrever que tras el mismo suceso se ocultan miles de historias, y que revisar el pasado es un acto subjetivo.

Gorde nazazu lurpean (2000) [*Guárdame bajo tierra*, 2002] está compuesta por cinco novelas breves: *Gudari zaharraren gerra galdua*; *Rossetti-ren obsesioa*; *Bi bihotz, hilobi bat*; *Marcel Martinen aitatasun ukatua* y *Asaba zaharren baratza*. Las cinco obras, de una manera u otra, hacen referencia a la atrofia afectiva causada por las fantasías del nacionalismo vasco. En las novelas *Martutene* (2012) [*Martutene*, 2013] y *Lili eta biok* (2015) [*La educación de Lili*, 2016], por otra parte, Saizarbitoria analiza el efecto traumático de la guerra en diferentes generaciones.

Al igual que ocurriera con la Guerra Civil, el número de novelas en torno a la violencia de ETA aumentó en las décadas de 1980 y 1990. Cabe

señalar que la actividad de ETA creció en la década de 1980 (el atentado cometido en el supermercado Hipercor en 1987 se cobró la vida de 21 personas). Algunas de las novelas centradas en la violencia de ETA son: *Mugetan* (1989) y *Eulien bazka* (2003), esta última de manera indirecta, de Hasier Etxeberria; *Etorriko haiz nirekin?* (1991) [*¿Vendrás conmigo?*, 2010] y *Ohe bat ozeanoren erdian* (2001) de Mikel Hernández Abaitua; las novelas ya mencionadas de Bernardo Atxaga; *Nerea eta biok* (1994) de Laura Mintegi; *Hamaika Pauso* (1995) de Ramon Saizarbitoria; *Berriro igo nauzu* (1996) de Xabier Mendiguren Elizegi; *Arian-arian* (1996) de Patxi Zabaleta; *Joaten zaretenean* (1997) y *Antzararen bidea* (2007) [*El camino de la oca*, 2008]



de Jokin Muñoz; *Kilkerra eta roulottea* (1997) de Joxemari Iturralde; *Pasaia blues* (1999) [*Pasaia Blues*, 2012] de Harkaitz Cano; *Zorion perfektua* (2002) [*La felicidad perfecta*, 2006] y *Etxeko hautsa* (2011) [*Los trapos sucios*, 2011] de Anjel Lertxundi; *Hamar urte barru* (2003) [*Al cabo de diez años*, 2006] de Joxe Belmonte; *Denboraren izerdia* (2003) de Xabier Montoia y *Ezinezko maletak* (2004) [*Las maletas imposibles*, 2008] de Juanjo Olasagarre. Entre todos estos títulos destaca *Antzararen bidea* (2007) de Jokin Muñoz.

atentatuak 21 hildako utzi zituen). ETaren indarkeria ardatz duten nobeletako batzuk dira Hasier Etxeberriaren *Mugetan* (1989) eta *Eulien bazka* (2003), azken horrek zeharka egiten badu ere; Mikel Hernandez Abaituaren *Etorriko haiz nirekin?* (1991) eta *Ohe bat ozeanoren erdian* (2001); Laura Mintegiren *Nerea eta biok* (1994); Xabier Mendiguren Elizegiren *Berriro igo nauzu* (1996); Patxi Zabaletaren *Arian-arian* (1996); Jokin Muñozen *Joaten zaretenean* (1997) eta *Antzararen bidea* (2009); Joxemari Iturrালের *Kilkirra eta roulottea* (1997); Harkaitz Canoren *Pasaia blues* (1999); Anjel Lertxundiren *Zorion perfektua* (2002) eta *Etxeko hautsa* (2011); Joxe Belmonteren *Hamar urte barru* (2003); Xabier Montoiaren *Denboraren izerdia* (2003) eta Juanjo Olasagarreren *Ezinezko mailetak* (2004). Horien artean nabarmentzekoa da Jokin Muñozen *Antzararen bidea* (2007).

Jokin Muñozek 1990eko hamarkadan hasi zuen bere literatur ibilbidea. Ordukoa da bere lehen nobela, *Joan zaretenean* (1997), iraganak gizakiongan duen eragina azaltzen duena. Kritikaren onarpena geroxeago, gatazka politikoak euskal gizartean duen eragina hainbat ikuspuntutik aztertzen duen *Bizia lo* (2003) narrazio bildumarekin heldu zitzaion. Lan horrekin, hain zuzen, Euskadi literatura saria jaso zuen egileak. Bere lanik biribilena, ordea, *Antzararen bidea* da, harekin ere Euskadi saria jaso zuen. *Antzararen bidea* Lisaren istorioa kontatzen du. Lisaren semea, Igor, ETAko kidea da eta Salouko (Tarragona) apartamentu batean manipulaten ari den bomba eztearen ondorioz hil egiten da. Jesus izeneko agure bat zaintzeaz arduratzen da Lisa. Jesus Nafarroako Erriberan kokaturiko Trillueloseko (asmaturiko herria) lur-jabe familia baten ondorengoa da, eta 36ko gerran errepresio faxista jasan zuen. Nobela *thriller* psikologiko moduan planteatuta dago, indarkeriak istorioko protagonisten bizitza nola hautsi duen, gehien maite zutena nola kendu dien azalduz. Norabide jakinik gabe mugitzen diren pertsonaia galeria da, nobela hasieran aipatzen diren antzaren antzeko: Jesusen osaba falangistak burua moztu ostean, antzarek ibiltzen jarraitzen zuten harik eta lurrera erori arte, odolputzu baten erdian. Muñozen lana, ordea, harantzago doa gerran altxatutakoek erakutsitako indarkeria ETaren indarkeriarekin harremanean jarriz.

Aro demokratikoko literatur panoraman jazotako gertaera



esanguratsuenetako bat emakumeen parte-hartzea euskal literaturan izan da. Gizonezkoekin konparatuta, emakumeen kopurua oraindik ere txikia da euskal literaturan (%15 ingurukoa dela uste da). Bestetik, euskal kritika feministak salatu du, Linda Whitek (1996) egindako azterketatik abiatuta, euskal literaturaren historiografia irizpide androzentrikoetan oinarritu izan dela (Olaziregi 1999). Edonola ere, emakumeek idatzitako euskal literatura nabarmenago egin da XX. mendeko azken hamarkadatik aurrera, doktorego tesiei (Nuñez Betelu 2001, Gonzalez 2007) eta ikerketa akademikoei esker (Iris Zavala 2000; Gabilondo 2006).

Arantxa Urretabizkaia *Zergatik, panpox* (1979) nobela laburrak duela bost urte senarrak utzitako emakume baten eta bere zazpi urteko semearen bizitzan egun bat jasotzen du. Nobelak, 1970ean Frantzian agertu zen «diferentziaren feminismoa» delakoari jarraituz argitaratu ziren lanen antzera, emakumearen rola gainera gogoetat

10. Arantxa Urretabizkaia.



10

10. Arantxa
Urretabizkaia.

Jokin Muñoz inició su andadura literaria en la década de 1990 con la novela *Joan zaretenean* (1997) [*Sin vosotros*, 2007], que muestra la influencia que el pasado ejerce en los seres humanos. La valoración positiva de la crítica le llegó después, con el libro de narraciones *Bizia lo* (2003) [*Letargo*, 2005], en el que se analiza el conflicto político vasco desde diferentes puntos de vista. Con este trabajo el autor recibió el Premio Euskadi de Literatura. Su obra más lograda, sin embargo, es la novela *Antzararen bidea* (2007), con la que también obtuvo el Premio Euskadi. *Antzararen bidea* cuenta la historia de Lisa. El hijo de Lisa, Igor, es miembro de ETA y fallece tras la explosión causada por la bomba que estaba manipulando en un apartamento de Salou (Tarragona). Después de la muerte de su hijo, Lisa se hace cargo de cuidar a un anciano llamado Jesús. Jesús pertenece a una familia lugarteniente de Trilluelos, localidad ficticia situada en la Ribera Navarra, que durante la Guerra Civil fue objeto de la represión falangista. La novela está planteada a modo de *thriller* psicológico, mostrando cómo la violencia ha destruido la vida de los protagonistas, cómo les ha quitado lo que más querían en la vida. Se trata de una galería de personajes que se mueven sin rumbo, al igual que las ocas que se mencionan al comienzo de la novela: después de que el tío falangista de Jesús les cortara la cabeza, las ocas seguían andando hasta caer rendidas al suelo en medio de un pozo de sangre. La novela de Muñoz, sin embargo, va más allá al poner en relación la violencia de los alzados con la de ETA.

Uno de los acontecimientos más notables del panorama literario del periodo democrático es la participación de las mujeres en la literatura escrita en euskera. El número de mujeres escritoras es aún pequeño si lo comparamos al de los hombres (se cree que ronda el 15%). Por otra parte, partiendo del análisis realizado por Linda White (1996) la crítica feminista ha denunciado que la historiografía de la literatura vasca se ha basado hasta ahora en criterios androcéntricos (Olaziregi 1999). De todas maneras, la literatura escrita por mujeres ha ganado visibilidad en la última década del siglo XX a través de tesis doctorales (Núñez Betelu 2001, González 2007) e investigaciones académicas (Iris Zavala 2000; Gabilondo 2006).

La novela breve *Zergatik, panpox* (1979) [*Por qué, Pampox?*, 1983] de Arantxa Urretabizkaia cuenta los avatares de un día en la vida de una madre abandonada

islatzen ditu. Alde horretatik, aipamen ugari egiten zaizkie emakumeen lan baldintzei, amatasunari eta emakumearen gorputzari, besteak beste. Bere bigarren nobelan, *Saturno* (1987), konta molde tradizionalagoetara jo zuen Urretabizkaiak. Lanak marinel alkohol zale baten eta Maite izeneko erizain baten arteko maitasun harremana azaltzen du. Hamaika urteko isilunearen ostean, gipuzkoarrak *Koaderno gorria* (1998) argitaratu zuen. Nobela bi planotan antolatuta dago: lehenengoak, protagonistak, Ama (testuan letra larriz agertzen da), bere seme-alabei koaderno gorri batean idatziriko gutun luzea du oinarri. Zazpi urte lehenago aitak berarekin eraman zituenetik, emakumeak ez du haurren berririk izan. Bigarren planoan, Amak seme-alabei koaderno emateko Venezuelara bidali duen abokatuaren bidaia azaltzen zaigu. *Koaderno gorriak* generoak baldintzaturiko gizartean militantzia politikoaren eta amatasunaren bateraezintasunaz gogoeta egiten du. 3 *Mariak* nobelan, berriz, emakumeek euskal gizartean betetzen duten rola du hizpide, kasu honetan zahartzaroaren ikuspuntutik egiten du.

Euskal nazionalismoari, bai tradizionalari bai erradikalari zuzenduriko kritika da Itxaro Borda idazlearen lan askoren ardatza, Euskadi literatura saria jasotako *%100 Basque* (2001) haien artean. *Susmaezinak* (2019) nobelan, berriz, 1980eko hamarkadan euskal gatazkak Iparraldean izandako eragina azaltzen zaigu. Bordaren lanik esanguratsuenak Amaia Ezpeldoi detektibe protagonista duten nobelak ditugu: *Bakean ützi arte* (1984), *Bizi nizano munduan* (1996), *Amorezko pena baño* (1996), *Jalgi hadi plazara* (2007), *Boga boga* (2012) eta *Ultimes déchets* (2015). Nobela beltza baliatuz, Bordak euskal gizartearen gatazka gunen nagusiak (egoera politikoa, euskara, intsumisioa, industrializazioa, migrazioa, genero gatazkak, neoliberalismoa) aztertzen ditu. Era berean, beste hainbat emakume idazleren antzera (Walton & Jones 1999), Bordak Raymond Chandler eta Dashiell Hammett-ek bultzaturiko nobela beltzan azaltzen den *hard boiled detective* delakoa birplanteatu egiten du: Amaia Ezpeldoi detektibea abertzalea eta lesbiana da, eta Lenin miresten du.

Euskal egoera politikoa eta emakumeek bertan betetzen duten rola dira Laura Mintegiren lan gehien oinarri. Bere estreinako nobela, *Bai... baina ez*

11. Itxaro Borda.

12. Laura Mintegi.





11. Itxaro Borda.
12. Laura Mintegi.

por su marido hace cinco años y de su hijo de siete años. Al igual que los trabajos publicados al hilo del *feminismo de la diferencia* en la década de 1979 en Francia, esta novela reflexiona sobre el rol de la mujer. En ese sentido, se hace referencia a las condiciones laborales de las mujeres, a la maternidad, al cuerpo de la mujer, entre otros. En su segunda novela, *Saturno* (1987) [*Saturno*, 1989], Urretabizkaia optó por un estilo narrativo más convencional. Esta novela muestra la relación amorosa entre un marinero alcoholizado y una enfermera llamada Maite. Tras un periodo de silencio que duró once años, la autora gipuzkoana publicó *Koaderno gorria* (1998) [*El cuaderno rojo*, 1998]. Dicha obra está organizada en dos planos: el primero, se centra en la carta que la protagonista, Ama (el nombre aparece en letras mayúsculas en el texto), escribe a sus hijos en un cuaderno rojo. Desde que el padre se llevara consigo a los niños siete años antes, la mujer no ha sabido de ellos. En un segundo plano, se nos ofrece el viaje a Venezuela de la abogada que la madre ha contratado para que entregue el cuaderno a sus hijos. *Koaderno gorria* reflexiona sobre la relación entre la maternidad y la nación o, para ser más exactos, sobre la dificultad de compatibilizar la militancia política con la maternidad en una sociedad condicionada por las perspectivas sobre el género. En 2010 Urretabizkaia publicó *3 Mariak* [*Las tres Marias*, 2011]. Una vez más la autora analiza el rol de las mujeres en la sociedad vasca, pero en esta ocasión lo hace desde el punto de vista de la vejez.

Ofrecer una mirada crítica sobre el nacionalismo vasco, tanto el tradicional como el radical, es el eje de muchas de las obras de Itxaro Borda, entre ellas *100% Basque* (2001) [*100% Basque*, 2003], ganadora del premio Euskadi. La novela *Susmaezinak* (2019), por otra parte, refleja los efectos del conflicto vasco en el País Vasco del Norte durante la década de 1980. La obra más significativa de Borda es la tetralogía que cuenta como protagonista a la detective Amaia Ezpeldoi, compuesta por los títulos *Bakean ützi arte* (1984), *Bizi nizano munduan* (1996), *Amorezko pena baño* (1996), *Jalgi hadi plazara* (2007), *Boga boga* (2012) y *Ultimes déchets* (2015). Valiéndose de las técnicas de la novela negra, Borda analiza los puntos conflictivos clave en la sociedad vasca (la situación política, el euskera, la insumisión, la industrialización, la inmigración, los conflictos de género, el neoliberalismo). Asimismo, al igual que otras escritoras (Walton & Jones 1999), Borda replantea el denominado *hard boiled* detective característico de la novela negra impulsada por Raymond Chandler y Dashiell Hammett: la detective Amaia Ezpeldoi es una patriota y es lesbiana, además de ser una admiradora de Lenin.

La situación política vasca y el rol que las mujeres juegan en la misma son la base de las obras de Laura Mintegi. Su primera novela, *Bai... baina ez* (1986),

(1986), Jon Miranderen *Haur besoetakoaren* kontraerrelatoa, gizarte arauetatik at kokatzen den maitasun istorioa dugu. Egilearen hurrengo lanak, *Legez kanpo* (1991), nobela beltza jarraitzen du euskal presoek jasandako torturak azaltzeko. Preso dagoen emakume bat, Nerea, da bere hurrengo nobelako koprotagonista, *Nerea eta biok* (1994). *Sisifo maite minez* (2001) eta *Ecce Homo* (2006) lanetan, berriz, Mintegik maitasunaren nondik norakoak eta politikari emakumeek egin diezaioketen ekarpena azaltzen ditu, hurrenez hurren.

Bien bitartean, Lourdes Oñederraren *Eta emakumeari sugeak esan zion* (1999) nobelak emakumeei lotu izan zaizkion rolekin (amatasuna, ahultasuna, pasibotasuna) hautsi egiten du. Sagarra jaten bazuen jakinduria osoaren jabe egingo zela zin egin zion sugeak Evari. Ondorioak, baina, bestelakoak izan ziren: errua eta zigorra, eta gizonen menpe bizi behar izatea. Nobelako protagonistak, 35 urteko Teresa, W-ra egingo duen bidaiaria bere burua eta orain arte erabilitako hizkuntza auzitan jartzeko aitzakia izango da. *Intemperies (babes bila)* (2013) nobelan bikote harremanei heltzen die berriz egileak.

Bestetik, Pello Lizarralderen literaturan zentzumenez jasotzen dena kontatzen da, interpretaziorik egin gabe; gertaerak azaltzen dira, baina gertaeren atzean dagoena jakinarazi gabe. Giro honetan, isilaldian gordetzen dena, esan edo ikusten ez dena misterio handia suertatzen zaio irakurleari eta, horrenbestean, edozein ekintzaren atzean (denik eta ekintzarik arruntena ere) zerbait bitxia dagoelako inpresioa uzten dio, zerbait bitxi eta misteriotsu hori zehazki zer den jakitera inoiz heltzen ez den arren. Ondoko nobelak argitaratu ditu Lizarraldek: *E pericoloso sporgersi. Zuri beltzean* (1984), *Hatza mapa gainean* (1988), *Un ange passé -isilaldietan-* (1998), Euskadi saria jasotako *Larrepetit* (2002), *Iragaitzaz* (2008), *Orbanak* (2012), *Elur bustia* (2016) eta *Argiantza* (2021) Euskadi saria izan zena. Ipuin bilduma bat ere idatzi du, *Sargori* (1994).

Harkaitz Canok poesia, haur- eta gazte-literatura, kronika, saiakera eta narratiba jorratu ditu. Azken horren barruan kokatzen dira *Telefono kaiolatua*

13. Pello Lizarralde.

14. Harkaitz Cano idazlea eta Leire Palacios kazetaria, Durangoko Azokan, 2018.



13. Pello Lizarralde.

14. El escritor Harkaitz Cano y la periodista Leire Palacios en la Feria del Libro y Disco de Durango (Bizkaia), 2018.



contrarrelato de la novela *Haur besoetakoa* de Jon Mirande, es una historia de amor situada fuera de las normas sociales. Su siguiente obra, *Legez kanpo* (1991), sigue las técnicas de la novela negra para mostrar la tortura sufrida por los presos políticos vascos. Una mujer que está presa, Nerea, es la coprotagonista de *Nerea eta biok* (1994). En *Sisifo maite minez* (2001) [*Sisifo enamorado*, 2003] y *Ecce Homo* (2006), Mintegi reflexiona sobre del amor y sobre la aportación que las mujeres pueden hacer a la política, respectivamente.

En su novela *Eta emakumeari sugeak esan zion* (1999) [*Y la serpiente le dijo a la mujer*, 2000] Lourdes Oñederra rompe con algunas de las características que se han tendido a considerar propias de las mujeres (la maternidad, la debilidad, la pasividad). La serpiente le prometió a Eva que se haría con toda la sabiduría si comía de la manzana. Las consecuencias de ese acto, sin embargo, fueron distintas: la culpa y el castigo, y el tener que vivir sometida a los hombres. El viaje que la protagonista de la novela, Teresa de 35 años, hará a W. sirve de excusa para que ella misma se cuestione y analice el lenguaje hasta ahora empleado. En *Intemperies (babes bila)* (2013) [*Intemperies*, 2015], la escritora analiza las relaciones de pareja.

Otro autor destacado es Pello Lizarralde. Su literatura refleja lo captado con los sentidos, sin interpretación alguna; se nos muestran los sucesos pero sin llegar a revelar lo que se esconde tras de ellos. En ese contexto, lo que se calla, lo que no se dice o no se ve, es todo un misterio para el lector y, por lo tanto, da la impresión de que hay algo extraño detrás de cualquier acción, así sea la acción más corriente; no obstante el lector nunca llega a saber qué es exactamente eso tan extraño y misterioso. Hasta la fecha, Lizarralde lleva publicadas las novelas: *E pericoloso sporgersi. Zuri beltzean* (1984), *Hatza mapa gainean* (1988), *Un ange passé -isialdietan-* (1998), la ganadora del Premio Euskadi de Literatura Larrepetit (2002), *Iragaitzaz* (2008), *Orbanak* (2012), *Elur bustia* (2016) y *Argiantza* (2021) con la que también obtuvo el premio Euskadi; y un libro de narraciones, *Sargori* (1994).

Harkaitz Cano, por su parte, ha cultivado tanto la poesía, como la literatura infantil, la crónica, el ensayo y la narrativa. A este último apartado corresponden sus libros de narraciones *Telefono kaiolatua* (1993), *Neguko zirkua* (2005) [*Circo de invierno*, 2013] y *Beti oporretan* (2015) [*El turista perpétuo*, 2017], así como las

(1993), *Neguko zirkua* (2005) eta *Beti oporretan* (2015) narrazio bildumak, eta *Beluna Jazz* (1996), *Pasaia blues* (1998), Euskadi literatura saria jasotako *Belarraren ahoa* (2004), *Twist* (2011) eta *Fakirren ahotsa* (2018) nobelak. Raymond Carver-ek landuriko dirtyrealism edo errealismo zikinaren ildotik, Canoren ipuingintza ustez orekatua den errealitatek elikatu egiten da haren hausturak azaltzeko. Era berean, bere narratibaren zein poesiaren ezaugarri nagusia hiri posmodernoa da. Gune zehatzik gabeko hiria dugu, zeinetatik norabiderik gabe mugitzen diren Canoren pertsonaiak (musikariak, idazleak, psikopatak). *Twist* eta *Fakirren ahotsa* nobeletan euskal gatazkari heltzen dio Canok, memoria, ahanztura, inplikazioa, erruduntasuna eta erredentzioa bezalako gaietan sakontzeko.

Unai Elorriagak eta Kirmen Uribek Espainiako Literatur Sari Nazionala jaso zuten beren lehen nobelagatik, 2002an eta 2009an hurrenez hurren. Elorriagak orain arte argitaraturiko lanen artean -*Van't Hoffen ilea* (2003), *Vredaman* (2005), *Londres Kartoizkoa da* (2009), *Iazko hezurak* (2014) eta *Iturria* (2019)- aipagarriena da *SPrako tranbia* (2001). Nobela hainbat hizkuntzatarara itzuli dute eta zinemara egokitu zuen Aitzol Aramaiok 2007an. Lanak Alzheimerren eraginez oroimena galtzen ari den Lucas du protagonista. Bi kontuk mantentzen dute Lucas bizirik: Shisha Pangma igotzeak eta jadanik hilda dagoen emaztearen oroitzapenak. Lucasekin batera bere arreba Maria eta haiekin bizitzera joango den Marcos gaztea azaltzen dira. Elorriagak gehien estimatzen dituen idazleen artean daude Jorge Luis Borges, Julio Cortázar, Juan Rulfo eta William Faulkner eta, hain zuzen, azken horren eragina sumatu daiteke *SPrako tranbian*. Faulknerren *Hotsa eta ardaila* nobelan erabilitako ahots aniztasuna bere eginez, oroimen arazoak tarteko fantasiaren eta errealitatearen artean bereizteko gai ez den Lucasen mundua gerturazten digu egile bizkaitarrak.

Kirmen Uriberen *Bilbao-New York-Bilbao* (2008) lanak idazlearen homonimoak Bilbotik New Yorkera egindako hegazkin bidaia azaltzen du. Bidaia aitzakia hartuta, bere familiarren hiru belaunaldiren gorabeherak, 36ko gerra garaian bizitakoak batez ere, gogora ekartzen ditu lanak. Bidaia, era berean, artearen funtzioaren zein artistak bizitzarekiko izan behar duen erantzukizunaren gainean gogoeta egiteko baliatzen du egileak. Irakurlea

15. Kirmen Uribe.



15. Kirmen Uribe.

novelas *Beluna Jazz* (1996), *Pasaia blues* (1998) [*Pasaia blues*, 2012], la ganadora del Premio Euskadi de Literatura *Belarraren ahoa* (2004) [*El filo de la hoja*, 2006], *Twist* (2011) [*Twist*, 2013] y *Fakirraren ahotsa* (2018) [*La voz del faquir*, 2019]. Siguiendo las técnicas del *dirty realism* o realismo sucio practicado, entre otros, por Raymond Carver, la narrativa de Cano se alimenta de una realidad aparentemente equilibrada para mostrar sus puntos de ruptura. Asimismo, la principal característica tanto de su narrativa como de su poesía es la ciudad posmoderna, una ciudad descentrada, por la que vagan los personajes de Cano (músicos, escritores, psicópatas). En las novelas *Twist* y *Fakirraren ahotsa* Cano dirige su mirada al conflicto armado para profundizar en temas como la memoria, el olvido, la implicación, la culpa y la redención.

Unai Elorriaga y Kirmen Uribe obtuvieron el Premio Nacional de Literatura con su primera novela, en 2002 y 2009 respectivamente. Entre las novelas que Elorriaga lleva publicadas –*Van't Hoffen ilea* (2003) [*El pelo de Van't Hoff*, 2004], *SPrako tranbia* (2003) [*Un tranvía en SP*, 2003], *Vredaman* (2005) [*Vredaman*, 2006], *Londres Kartoizkoa da* (2009) [*Londres es de cartón*, 2010], *Iazko hezurak* (2014) e *Iturria* (2019)–, destaca *SPrako tranbia*. Esta novela ha sido traducida a varias lenguas y fue adaptada al cine por Aitzol Aramaio en 2007. *SPrako tranbia* cuenta como protagonista a Lucas, un anciano que está perdiendo la memoria debido al Alzheimer. Lo único que mantiene a Lucas con vida son su deseo de ascender el Shisha Pagma y el recuerdo de su esposa fallecida. Junto a Lucas aparecen su hermana María y un joven que acabará viviendo con ellos, Marcos.

Entre los autores favoritos de Elorriaga se encuentran Jorge Luis Borges, Julio Cortázar, Juan Rulfo y William Faulkner. Es precisamente la influencia de este último la que se hace notar en *SPrako tranbia*. Haciendo suya la pluralidad de voces exhibida por Faulkner en *The Sound and the Fury* (*El ruido y la furia*), el autor vizcaíno nos acerca el mundo interior de Lucas, el cual, debido a su confusa memoria, es incapaz de diferenciar entre la fantasía y la realidad.

Bilbao-New York-Bilbao (2008) [*Bilbao-New York-Bilbao* 2010] de Kirmen Uribe narra el viaje que el homónimo del autor realiza en avión de Bilbao a Nueva York. Tomando este viaje como excusa, el autor revisita lo acontecido a tres generaciones de su familia, lo vivido durante la Guerra Civil especialmente. El viaje, asimismo,

sirve para reflexionar sobre la función del arte y la responsabilidad del artista hacia la vida. El lector es testigo del propio proceso de escritura; el texto se irá formando ante sus ojos mediante mensajes electrónicos, entradas de diarios, textos tomados de Wikipedia, etc. En las novelas *Mussche* (2012) [*Mussche*, 2013] y *Elkarrekin esnatzeko ordua* (2016) [*La hora de despertarnos juntos*, 2016] el autor una vez más se hace eco de episodios tomados de la realidad para recuperar una serie vidas condicionadas por la guerra.

La perspectiva de género es el eje que vertebra la narrativa de Karmele Jaio, invitando a los y las lectoras a imaginarse las relaciones familiares y las dinámicas sociales de otra manera. Las diferencias generacionales, la vejez y la influencia que el pasado puede llegar a tener en el presente son algunos de los temas abordados en las novelas *Amaren eskuak* (2006) [*Las*



testuaren beraren idazketa prozesuaren lekuko da; haren aurrean osatzen joango da mezu elektronikoa, eguneroko zati, Wikipedia sarrera eta abarren bidez. *Mussche* (2012) eta *Elkarrekin esnatzeko ordua* (2016) nobeletan ere benetako gertaerei heltzen die gerrak baldintzaturiko bizitzak berreskuratzeko.

Genero ikuspegiak gidatzen du Karmele Jaioren nobelagintza, eta irakurlea bultzatzen du familia eta gizartearen dinamikak beste modu batera imajinatzen. Belaunaldien arteko aldea, zahartzarua eta iraganak orainaldia nola baldintzatu dezakeen aztertzen du bere *Amaren eskuak* (2006) eta *Musika airean* (2009) nobelek. *Aitarene txea* (2019) lanean, berriz, aita-senarren rola du hizpide jarrera tradizionalak baztertu eta bestelako maskulinitateak proposatu aldera. Hiru ipuin bildumaren egile ere bada Jaio: *Hamabost zauri* (2004), *Zu bezain ahul* (2007) eta *Ez naiz ni* (2012).

Katixa Agirreraren nobelek kultura popularrak eta komunikabideek nortasuna, dela indibiduala dela nazionala, nola eraiki eta deseraikitzen duten aztertzen du. *Atertu arte itxaron* (2015) lanean hobeto elkar ezagutzeko asmoz bikote batek autoz Euskal Herrian zehar egiten duen bidaia kontatzen zaigu. Bidaian ezer ez da planifikatutakoaren arabera aterako, ordea, jatorri ezberdintasunak uste baino gehiago baldintzatzen duelako beren arteko harremana. *Amek ez du* (2018) nobelak, berriz, bere haurrak hil dituen ama baten kasutik abiatuta amatasunaren gaineko mitoei heltzen die. Istorioan zehar historia, filosofia, literatura zein zinematik harturiko adibideak trebetasun handiz txertatzen ditu Agirrek sortzearen (dela amatasuna dela idazketa), generoaren, errepresentazioaren (nork hitz egiten duen eta noren izenean) zein justizia sistemaren (gizarte zigortzailea ala errehabilitatzailea ote da gurea?) gainean galdera interesgarri askoak planteatzen dituen nobelan.

Elkar fundazioak eta Siadeco ikerketa taldeak euskal kulturaren erabilera eta kontsumoaren gainean osatu eta 2018ko udaberrian zabaldutako txostenak nahiko panorama beltza aurkeztu zuen. Txostenaren arabera, inkesta egin dietenen artean %28k bakarrik adierazi zuen euskaraz idatzitako liburuak sarri irakurtzen dituztela. Paradoxikoki, argitalpen kopuruari zein edukari begira, indartsu hasi zuen euskal literaturak XXI. mendea. Nabarmentzekoa da mendeko lehen bi hamarkadetan memoria historikoak euskal literaturan izan duen pisua, batik bat 36ko gerraren memoria berreskuratzeari dagokionez.

16. Karmele Jaio.

17. Katixa Agirre.



16. Karmele Jaio.
17. Katixa Agirre.



manos de mi madre, 2008] y *Musika airean* (2009) [*Música en el aire*, 2013]. *Aitaren etxea* (2019) [*La casa del padre*, 2020], por su parte, reflexiona sobre el rol del padre-marido para cuestionar las actitudes tradicionales y proponer otro tipo de masculinidades. Jaio es además autora de tres libros de narraciones: *Hamabost zauri* (2004), *Zu bezain ahul* (2007) y *Ez naiz ni* (2012).

Las novelas de Katixa Agirre reflejan cómo la cultura popular y los medios de comunicación construyen y deconstruyen tanto la identidad individual como la nacional. En *Atertu arte itxaron* (2015) se nos cuenta el viaje en coche que una pareja realiza a través del País Vasco para conocerse mejor. Sin embargo, el viaje no va a salir según lo planificado ya que la diferencia de origen condiciona la relación de la pareja más de lo esperado. Por su parte, la novela *Amek ez dute* (2018) [*Las madres no*, 2019] se centra en los mitos sobre la maternidad a través del caso de una madre que mata a sus hijos. A lo largo de la narración, Agirre entrelaza ejemplos tomados de la historia, la filosofía, la literatura y el cine para plantear preguntas provocativas sobre el acto creativo (tanto el relacionado con la maternidad como con la escritura), la representación de género (quién suele tener la palabra y en nombre de quién) y el sistema judicial (¿es la nuestra una sociedad castigadora o rehabilitadora?).


El estudio realizado en la primavera de 2018 por la Fundación Elkar y Siadeco sobre el uso y consumo de la cultura vasca reflejaba un panorama bastante oscuro. Según el estudio, el 28% de los encuestados indicó leer libros escritos en euskera con asiduidad. Paradójicamente, la literatura vasca dio comienzo al siglo XXI con fuerza, al menos en cuanto al número de publicaciones que vieron la luz y a la calidad de las mismas. Cabe resaltar el peso de la memoria histórica en la literatura producida en las primeras dos décadas del siglo, sobre todo en cuanto a la recuperación de la memoria de la Guerra Civil.

El interés mostrado por la literatura vasca hacia la memoria no se trata de un fenómeno aislado; por el contrario, debe entenderse dentro del boom de la memoria que tuvo lugar en los países occidentales a partir de la década de 1980. La principal característica de esta literatura de memoria es que no se limita a narrar los sucedido en el pasado; el propio proceso mnemónico es objeto de estudio. Es decir, *qué* se recuerda es tan importante como *la manera* en que se recuerda. Asimismo, se resalta la intertextualidad, poniendo en relación la

Euskal literaturak memoriarekiko agerturiko interesa ez da fenomeno isolatua; aitzitik, 1980eko hamarkadatik aurrera Mendebaldeko herrialdeetan jazo zen memoriaren ezteandaren barruan kokatu behar dugu. Memoriaren literatura honen bereizgarria da ez dela iraganeko gertaerak azaltzera mugatzen; oroimen prozesua bera du aztergai, hots, zer gogoratzen den nola gogoratzen den bezain garrantzitsua da. Bestetik, intersektionalitateari helduta gerrako indarkeria beste indarkeria mota batzuekin jartzen du harremanetan. Nabarmentzekoa da 2000ko lehen bi hamarkadetan gerraren inguruan argitaraturiko zenbait lan Marianne Hirsch-ek postmemoriaren belaunaldia deituriko horrek, hau da, gertaera bizi ez eta haren inguruko informazioa guraso, aitona-amona, eskola, zein testuliburuetatik jaso duen belaunaldiak idatzi dituela. Horren adibide ditugu Kirmen Uriberen *Bilbao-New York-Bilbao* (2008), *Mussche* (2012) eta *Elkarrekin esnatzeko ordua* (2016) zein Uxue Alberdiren *Aulki-jokoa* (2009).

Memoria historikoarekiko interesa ez da Espainiako gerrara mugatzen. Iragan hurbileko zein aurreko mendeetako gatazkei ere bide egin zaie euskal literaturan, besteak beste Lehen Mundu Gerrari, Xabier Montoiaren *Hezur gabeko hilak* (1999) eta *Blackout* (2004) zein Patxi Iturregiren *Ur biren artean* (2019) lanek azaldu bezala. ETaren indarkeria gai berria ez bazen ere, gatazka armatuaren amaierak (2011n arma bidezko jarduera politikoa behin betiko utzi zuela iragarri zuen erakundeak) denetariko ikuspegietan sakontzeko aukera eman die euskal idazleei. Espainiar estatuak bideraturiko gerra zikina agertzen zaigu Harkaitz Canoren *Twist* (2011) nobelan, eta kale borrokaren mundua Beñat Sarasolaren *Deklaratzekorik ez* (2019) lanean. Bien bitartean, 1980ko giro nahasia dute hizpide Lander Garroren *Gerra txikia* (2014), Uxue Alberdiren *Jenisjoplin* (2017) zein Itxaro Bordaren *Susmaezinak* (2019) lanek. *Jenisjoplinek* aipatu hamarkadan Hego Euskal Herrian militantzia politikoaren, drogen eta HIESAren eragina azaltzen duen kontaketa eskaintzen digun bitartean, Bordaren nobelak garai berean Iparraldean errefuxiatu politikoek GALEn eskutik jasandako errepresioa, ETaren indarkeria eta biktimak parez pare jartzen ditu.

Memoria historikoaren ezteandak ez du gaur egungo gaiekiko interesa apaldu. Aitzitik, XXI. mendeko Euskal Herria begi kritikoz aztertzen duten nobeletako askok, Europan eta, oro har, Mendebaldean betetzen duen tokia galdekatzen dute. Genero kontuei heltzen diete lan hauetako batzuek, hala nola jadanik aipaturiko Katixa Agirreraren *Amek ez dute* (2018) eta Karmelet Jaioaren *Aitaren etxea* (2019) nobelek zein Hego Euskal Herriko gay mugimenduaren etnografia modukoa eskaintzen duen Juanjo Olasagarreren *Poz aldrebesa* (2017) lanak. Politika neoliberalen eragina eta immigrazioa dute hizpide beste batzuek; Iñaki Frieraren *Lehorreko paterak* (2001), Iñigo Aranbarriaren *Zamaontzia* (2011) eta *Apirila* (2014) zein Amets Arzallus eta



Ibrahima Balderen *Miñan* (2019) aipa daitezke adibide moduan.

Ezin aipatu gabe utzi nobela grafikoak bizi duen loraldia euskal literaturan. Euskal Herriarentzat iragan alternatibo bat irudikatzen duen Hedoi Etxarte idazlearen eta Alain M. Urrutia marrazkilaria *Ihes ederra* (2009) lanak

18. 2020ko Euskadi sariak Durangoko Azokan. Iñigo Astiz, Idoia Santamaria, Uxue Alberdi eta Karmelet Jaio.



18. Premios Euskadi 2020 en la Feria del Libro y Disco de Durango (Bizkaia). Iñigo Astiz, Idoia Santamaria, Uxue Alberdi y Karmele Jaio.

violencia de la guerra con otro tipo de violencias. Destaca que algunas de las obras publicadas en las primeras dos décadas del 2000 son fruto de lo que Marianne Hirsch ha llamado generación post-memoria. Se trata de una generación que no ha vivido los sucesos sobre los que escribe y cuya memoria llega a través de sus padres, abuelos, la escuela o libros de texto. Un ejemplo de este tipo de obras son *Bilbao-New York-Bilbao* (2008), *Mussche* (2012) y *Elkarrekin esnatzeko ordua* (2016) de Kirmen Uribe, y *Aulki-jokoa* (2009) [*El juego de las sillas*, 2012] de Uxue Alberdi.

El interés sobre la memoria histórica no se limita a la Guerra Civil. A través de la literatura vasca también se le ha dado visibilidad a la Primera Guerra Mundial, como es el caso de *Hezur gabeko hilak* (1999) y *Blackout* (2004) de Xabier Montoia o *Ur biren artean* (2019) [*Impredicible marea*, 2020] de Patxi Iturregi. Si bien la violencia de ETA no era un tema nuevo, el fin del conflicto armado (en 2011 la organización puso final a su actividad política a través de las armas) ha facilitado que los escritores profundicen en todo tipo de perspectivas. La Guerra sucia emprendida por el estado español es el eje central de *Twist* (2011) de Harkaitz Cano, mientras que *Deklaratzekorik ez* (2019) de Beñat Sarasola reflexiona sobre los efectos de la *kale borroka*. Por su parte, *Gerra txikia* (2014) de Lander Garro, *Jenisjoplin* (2017) [*Jenisjoplin*, 2020] de Uxue Alberdi y *Susmaezinak* (2019) de Itxaro Borda reflejan el ambiente turbulento de la década de 1980. *Jenisjoplin* analiza el efecto de la militancia política, las drogas y el SIDA en el País Vasco peninsular durante aquella época, mientras que la novela de Borda crea un diálogo entre la represión sufrida por los refugiados políticos en el País Vasco del Norte de la mano del GAL, la violencia de ETA y las víctimas.

El boom de la memoria histórica no ha debilitado el interés por los temas de actualidad. Por el contrario, muchas de las novelas ofrecen una mirada crítica al País Vasco del siglo XXI, cuestionando el lugar que ocupa el mismo en Europa y en el mundo occidental en general. Algunas de estas obras se centran en cuestiones de género, como las ya mencionadas *Amek ez dute* (2018) de Katixa Agirre y *Aitaren etxea* (2019) de Karmele Jaio, o *Poz aldrebasa* (2017)

LITERATURA

abiarazi zuen mugimendu hau. Argitaraturiko beste nobela grafikoetako batzuk dira Fermín Muguruza, Harkaitz Cano eta Jorge Aldereteren *Black is beltza* (2018), Yurre Ugarte eta Joseba Larratxeren *Joana Maiz* (2019), Etxeberria anaien eta Aritz Truebaren *Buyan. Heriotzaren uhartea* (2019) zein Harkaitz Cano eta Adur Larrearen *Antzara eguna* (2019).

IPUINA

Ipuina, terminoaren zentzu modernoan, genero berria da euskaraz. 1950 eta 1970eko hamarkadetan agertu ziren, Gabriel Aresti (*Ipuinak* 1979) zein Jon Mirande (*Gauaz parke batean, Ipuin izugarriak* 1984) bezalako egileen eskutik, Poe, Gogol zein Maupassant bezalako idazle modernoek estiloko ipuinak. Aurrekari bezala Martin Ugalderen *Iltzalleak* (1961) ere aipa genezake. Dena dela, 1980eko hamarkadan sendotu zen generoa, kopuru zein kalitate aldetik. Lehenago aipaturiko arrazoi historiko-kulturalekin batera, Pott Bandaren (1978-1979) ekarpena azpimarratu behar da generoari eman zion bultzadagatik.

Pixkanaka-pixkanaka narraziogintza aberastuz joan da eta gaur egun, nobelarekin gertatu bezala, eklektizismoa da nagusi. Azken hamarkadetako euskarazko narraziogintzan badira errealismoa jorratu duten ipuinak, dela ukitu fantastikoduna (Hasier Etxeberria, Unai Elorriaga, Imanol Zurutuza...), dela Raymond Carver edo Tobias Wolff-en errealismo zikinaren ildokoa (Pako Aristi, Xabier Mendiguren, Edorta Jiménez, Xabier Montoia, Arantxa Iturbe, Pello Lizarralde...); gogoeta metanarratiboa bilatzen duten errelatoak (Juan Garzia, Anjel Lertxundi, Iban Zaldúa, Aurelia Arkotxa...); fantasia absurdoarekin tartekatzen duten narrazioak (Karlos Linazasoro, Harkaitz Cano...); mikroerrelatoak (Iban Zaldúa, Joseba Sarrionandia, Karlos Linazasoro, Ana Malagon).

Narraziogintzan nabarmendu diren egileetako bat da Joseba Sarrionandia. *Narrazioak* (1983), *Atabala eta euria* (1986) eta *Ifar Aldeko*

19. Txomin Peillen eta Arantxa Iturbe Gutun Zuria jaialdian, Bilbon, 2014an.



de Juanjo Olasagarre, la cual ofrece una especie de etnografía del movimiento gay en el País Vasco peninsular. El efecto de las políticas neoliberales y de la inmigración es el foco de otras obras como *Lehorreko paterak* (2001) de Iñaki Frieria, *Zamaontzia* (2011) y *Apirila* (2014) de Iñigo Aranbarri o *Miñan* (2019) [*Hermanito*, 2021] de Amets Arzallus e Ibrahim Balde.

Cabe mencionar también el resurgimiento de la novela gráfica en la literatura vasca. La obra *Ihes ederra* (2009) [*La bella huida*, 2010] de Hedoi Etxarte y Alain M. Urrutia, la cual propone un pasado alternativo para el País Vasco, puso en marcha este movimiento. A ella le siguieron *Black is beltza* (2014) [*Black is beltza*, 2014] de Fermin Muguruza, Harkaitz Cano y Jorge Alderete, *Joana Maiz* (2019) [*Joana Maiz*, 2019] de Yurre Ugarte y Joseba Larratxe, Buyan. *Heriotzaren uharte* (2019) de los hermanos Etxeberria y Aritz Trueba, y *Antzara eguna* (2019) de Harkaitz Cano y Adur Larrea.

CUENTO

Miren Agur Meaberen *Azalaren kodea* (2000) poema liburuak interes handia piztu zuen kritikarien artean, lirismoa, erotismoa eta sentsualitatea uztartzen baititu. *Azalaren kodea* lan arras pertsonala da. Meaberen beraren hitzetan, poemategiak egilearen «erradiografia kaleidoskopikoa» eskaintzen dio irakurleari. Esperientzia horien barruan kokatu beharko genituzke iraganak orainean utzitako aztarnak ez ezik ametsak, zeinetan erotismoak toki handia betetzen duen. Emakumearen desio sexualen azalazteko horretan, Hélène Cixous-en postulatuekin nolabaiteko lotura antzematen du Iratxe Gutierrez kritikariak, *Le rise de la Méduse* lanaren egileak inkontzientearen eta libidoaren ildotik abiatutako idazketa proposatzen baitzuen. *Azalaren kodea* poemategiagatik Kritika Saria jaso zuen Meabek, 2001ean. *Bitsa eskuetan* (2010) bilduman ohiko gaiak agertzen zaizkigu: amodioa, heriotza, sexua, bakardadea. Meabek 2021eko Poesia Sari Nazionala eskuratu zuen *Nola gorde errautsa kolkoan* (2020) poema bildumarekin.

Aipatu beharreko beste poeta batzuk dira Igor Estankona, Jon Gerediaga, Beñat Sarasola, Iñigo Astiz eta Hedoi Etxarte.

Junto a *Herri eta Herri* de Gabriel Aresti y *Etiopia* de Bernardo Atxaga, *Bitartean heldu eskutik* (2001) [*Mientras tanto dame la mano*, 2004] de Kirmen Uribe es acaso el poemario que mejor acogida ha tenido por parte de las lectoras y lectores vascos. El poemario está estructurado en base a siete apartados, por lo que los poemas que cada uno de ellos recoge suele girar en torno al mismo tema. De esta forma, el poeta reflexiona sobre la tecnología, el progreso o la búsqueda de la perfección y los efectos nocivos que todo ello tiene sobre la sociedad actual, sobre la propia humanidad, y proclama la necesidad de volver a la esencia. Tal y como señala en uno de los poemas, su objetivo es «adaptar el ser humano... a la medida del mundo». La necesidad de adaptar el ser humano al mundo lleva, inevitablemente, al poeta a profundizar en las relaciones entre los individuos para llegar a la siguiente conclusión: la palabra no es el medio apropiado, o al menos más efectivo para comunicar al otro los sentimientos de uno. Por ello, destaca el valor de los gestos: el valor de la comunicación corporal. En *17 segundo* (2019) se nos muestran temas similares a los reflejados en su poemario anterior.

25. Miren Agur Meabe.

El poemario *Azalaren kodea* (2000) [*El código de la piel*, 2002] de Miren Agur Meabe desprende un gran lirismo, erotismo y sensualidad, suscitó el interés de la crítica. Se trata de una obra muy personal. En palabras de la propia Meabe, el poemario muestra al lector una «radiografía caleidoscópica» de la poeta. Dentro de esas experiencias deberíamos situar, además del rastro que el pasado deja en el presente, a los sueños en los que el erotismo juega un papel importante. La crítico Iratxe Gutiérrez cree ver cierta relación entre esa exteriorización del deseo sexual de la mujer y los postulados de Hélène Cixous, puesto que la autora de *Le rise de la Méduse* propone una escritura que beba del inconsciente y de la libido. *El código de la piel* recibió el premio de la Crítica en 2001. El poemario *Bitsa eskuetan* (2010) [*Espuma en las manos*, 2017] presenta temas habituales en la obra de Meabe: el desamor, la muerte, el sexo y la soledad. Meabe ganó el Premio Nacional de Poesía con *Nola gorde errautsa golkoan* (2020) [*Cómo guardar ceniza en el pecho*, 2021].

Otros poetas a destacar son Igor Estankona, Jon Gerediaga, Beñat Sarasola, Iñigo Astiz y Hedoi Etxarte.



Beste hizkuntzetan egindako literatura



Niebla

Unamuno

Alianza editorial

Euskara ez beste hizkuntzetan aritu diren Euskal Herriko idazleen atzerabegirakoa gaztelaniaz idatzi duten horiekin hasiko dugu. Narratibari begira, nabarmentzekoak dira 98ko Belaunaldiko kide izandako Miguel Unamuno eta Pio Baroja.

Nobela, antzerkia eta saiakera landu zituen Miguel Unamunok. Bere lehen eleberria, *Paz en la guerra* (1895), Filosofian doktore-titulua eskuratzeko idatzi zuen tesian (*Crítica del problema sobre el origen y prehistoria de la raza vasca*) defendaturiko ideietan oinarrituta dago. Hirugarren Karlistaldian oinarritzen zen eleberri hura, baina ez zuen batere zerikusirik

aurreko belaunaldiaren elezharretako literatura historikoarekin, hala nola Navarro Villosladaren *Amaya o los vascos en el siglo VIII* lanarekin (1879). Jesus Maria Lasagabasterren esanetan, 98ko Belaunaldiko Euskal Herriko idazleen literatura erregionalista «aurreko belaunaldien, hots, Trueba, Campion, Araquistain, Goizueta, Arana eta enparauen foruzaletasunaren eta literatur nazionalismoaren heriotza-agiria izango zen» (2002: 274). Hauek ere idatzi zituen Unamunok: *Niebla* (1914) [Laino, 1998], *Abel Sánchez, una historia de pasión* (1917) [Abel Sanchez, 1992], *Tulio Montalbán* (1920), *San Manuel Bueno, mártir* (1930) eta *Don Sandalio, jugador de ajedrez* (1930).

Pio Barojak nobela jorratu zuen nagusiki, baina saiakera ere landu zuen maiz, baita antzerkia, lirika eta biografia ere. Arthur Schopenhauer-en ezkortasun sakonaren eragina zuen filosofia adierazi zuen bere eleberrietan, baina ekintzaren bidezko berrerosketa aldarrikatu zuen nolabait, Friedrich Nietzsche-ren ildoan: pertsonaia abenturazale eta bizizale ugari ageri dira bere nobela gehienetan, baita pertsonaia gogogabe eta desengainatu batzuk ere, hala nola Andrés Hurtado *El árbol de la ciencia* (1911) [Jakintzaren arbola, 2006] lanean eta Fernando Ossorio *Camino de perfección (pasión mística)* (1902) lanean.

XX. mendeko lehenengo bi hamarkadetan jaiotako egileen artean, aipatzekoak dira Ignacio Aldecoa, Luis Martín Santos, Ramiro Pinilla eta Pablo Antoñana.

Luis Martín Santosek 1962an argitaraturiko *Tiempo de silencio* nobelak iraultza ekarri zuen orduko eleberrigintzara, hainbat berrikuntza estilistiko ezarri baitzituen, besteak beste barne-bakarrizketa, bigarren pertsonaren erabilera, zeharkako estilo librea eta kontzientziaren jarioa. James Joyce-z geroztik, europar eleberrigileak prozedura horiek lantzen arituak ziren, baina errealismo sozialarekin batere zerikusirik ez zuten. Horren guztiaren ondorioz, Martín Santosek berak *errealismo dialektiko* izendatu zuena sortu zen.

Literatura vasca en otras lenguas


Damos comienzo al apartado dedicado a la literatura de autores vascos que han escrito en otras lenguas con la literatura en castellano. En narrativa, cabe reseñar a Miguel de Unamuno y Pío Baroja, ambos pertenecientes a la generación del 98.

Miguel de Unamuno escribió novelas, obras teatrales y ensayos. Su primera novela, *Paz en la guerra* (1895), está basada en algunas de las ideas defendidas en su tesis doctoral en Filosofía (*Crítica del problema sobre el origen y prehistoria de la raza vasca*). Pese a basarse en la tercera guerra carlista (que el propio autor conoció en su niñez), esta obra nada tiene que ver con la literatura histórico-legendaria de la generación anterior, a la que pertenece *Amaya o los vascos en el siglo VIII* (1879) de Navarro Villoslada. Según señala Jesús María Lasagabaster, la literatura regionalista de los escritores vascos del 98 «sería de hecho el certificado de defunción del fuerismo y del nacionalismo literario de las generaciones anteriores, de Trueba a Campión, pasando por Araquistain, Goizueta y Arana» (2002: 274). Otras de las novelas de Unamuno son *Niebla* (1914), *Abel Sánchez, una historia de pasión* (1917), *Tulio Montalbán* (1920), *San Manuel Bueno, mártir* (1930) y *Don Sandalio, jugador de ajedrez* (1930).

Pío Baroja, por su parte, cultivó preferentemente el género narrativo, pero se acercó también con frecuencia al ensayo y más ocasionalmente al teatro, la lírica y la biografía. En sus novelas reflejó una filosofía impregnada del profundo pesimismo de Arthur Schopenhauer, pero que predicaba una especie de redención por la acción, en la línea de Friedrich Nietzsche: de ahí los personajes aventureros y vitalistas que inundan la mayor parte de sus novelas, pero también los más escasos abúlicos y desengañados, como el Andrés Hurtado de *El árbol de la ciencia* (1911) o el Fernando Ossorio de *Camino de perfección (pasión mística)* (1902), dos de sus novelas más completas.

Entre los autores pertenecientes a la generación que vio la luz durante las primeras dos décadas del siglo XX figuran Ignacio Aldecoa, Luis Martín Santos, Ramiro Pinilla y Pablo Antoñana.

La novela *Tiempo de silencio* de Luis Martín-Santos, publicada en 1962, supuso una revolución en el panorama novelístico del momento. Esta novela presentó varias novedades estilísticas como el monólogo interior, el uso de la segunda persona, el estilo indirecto libre o el flujo de conciencia, procedimientos narrativos que venían ensayándose en la novela europea desde James Joyce pero que eran ajenos al realismo social al uso de la época. Todo ello contribuyó a lo que el propio Martín-Santos denominó *realismo dialéctico*.



Ignacio Aldecoa poesia idazten hasi zen, baina narrazioaren alde egin zuen berehala. Genero horretan, hain zuzen, nabarmendu zen egilea. Hainbat narrazio bilduma atondu zituen, eta, horien artean, aipatzekoak dira hauek: *Espera de tercera clase* (1955), *Vísperas del silencio* (1955), *El corazón y otros frutos amargos* (1959), *Caballo de pica* (1961), *Arqueología* (1961), *Cuaderno de Godo* (1961), *Neutral corner* (1962) eta *Pájaros y espantapájaros* (1963). Aldecoaren narrazioak joera neorrealistaren barruan kokatzen dira, eta behartsuen eta babesgabeen mundua azaltzen dute.

Ramiro Pinilla 1960an hasi zen literatur munduan ezagun bihurtzen, *Las ciegas hormigas* lanari esker Nadal saria eskuratu ostean. 2005ean *Verdes valles, colinas rojas* trilogia idazteari ekin zion. *La tierra convulsa*, *Los cuerpos desnudos* eta *Las cenizas del hierro* lanek osatzen dute trilogia, eta Euskal Herriaren eta abertzaletasunaren azkenaldiko historiaren irudi handinahia eskaintzen dute. 2005ean, Euskadi saria irabazi zuen Pinillak, *La tierra convulsa* lanari esker, eta 2006an, Espainiako Narratiba Saria, *Las cenizas del hierro* lanari esker.

1930eko eta 1940ko hamarkadetan jaiotako egileen artean, aipatzekoak dira Raúl Guerra Garrido, Jorge González Aranguren, Ángel García Ronda, German Sánchez Espeso, Rafael Castellano de la Puente, J.J. Rapha Bilbao, Manuel Blanco Chivite eta Toti Martínez de Lezea.

Raúl Guerra Garridok 1969an idatzi zuen lehen eleberria, *Ni héroe ni nada*, eta, ordutik, hogeit bat lan argitaratu ditu. 1976an, Nadal saria irabazi zuen *Lectura insólita de El Capital* lanarekin eta 1984an, berriz, Planeta sarirako finalista izan zen *El año del Wolfram* lanari esker. 1987an *La*



26. Ramiro Pinilla.
27. Luisa Etxenike.



26. Ramiro Pinilla.
27. Luisa Etxenike.

Ignacio Aldecoa comenzó a escribir poesía, pero pronto se decantó por la narrativa, género en el que destacó especialmente por sus narraciones. Es autor de varias colecciones de relatos, entre los que figuran *Espera de tercera clase* (1955), *Vísperas del silencio* (1955), *El corazón y otros frutos amargos* (1959), *Caballo de pica* (1961), *Arqueología* (1961), *Cuaderno de Godo* (1961), *Neutral corner* (1962) y *Pájaros y espantapájaros* (1963). Su obra narrativa se inscribe dentro de la corriente neorrealista, y describe el mundo de los desfavorecidos y desamparados.

El nombre de Ramiro Pinilla empezó a sonar con fuerza en el mundo literario tras hacerse con el Premio Nadal en 1960 con *Las ciegas hormigas*. En 2005 empezó a redactar la trilogía *Verdes valles, colinas rojas*, compuesta por los títulos *La tierra convulsa*, *Los cuerpos desnudos* y *Las cenizas del hierro*, un ambicioso fresco sobre la historia reciente del País Vasco y del nacionalismo, además de ser un sagaz retrato de Getxo (Bizkaia), su pueblo natal. Pinilla obtuvo el Premio Euskadi por *La tierra convulsa* en 2005, y en 2006 recibió el Premio Nacional de Narrativa por *Las cenizas del hierro*.

Entre los autores nacidos en las décadas de 1930 y 1940 se encuentran Raúl Guerra Garrido, Jorge González Aranguren, Ángel García Ronda, Germán Sánchez Espeso, Rafael Castellanluio de la Puente, J. J. Rapha Bilbao, Manuel Blanco Chivitey Toti Martínez de Lezea. Raúl Guerra Garrido escribió su primera novela, *Ni héroe ni nada*, en 1969 y desde entonces lleva publicadas una veintena de obras. Ganó el Premio Nadal en 1976 por *Lectura insólita de El Capital* y fue finalista del Premio Planeta en 1984 por *El año del Wolfram*. En 1987 vio la luz *La mar es una mala mujer*, según la crítica su obra más completa, que posteriormente fue llevada al cine bajo el título *Terranova*. La obra narra la lucha de Antxon en contra del tiempo. La violencia terrorista es uno de sus grandes temas, en el cual indaga *La carta* (1990) o la reciente *La soledad del ángel del guarda* (2007), retrato psicológico de un hombre que pasa a ser la sombra de un profesor amenazado por el terrorismo y por la que obtuvo el Premio Nacional de las Letras Españolas en 2006.

Entre los autores nacidos en la década de 1950 figuran Miguel Sánchez-Ostiz, Antonio Altarriba, Miguel González San Martín, Paloma Díaz-Mas, Luisa


mar es una mala mujer kaleratu zuen. Kritikarien ustez, horixe da Guerra Garridoren lanik osoena, *Terranova* izenburuaz zinemaratutakoa; Antxonek denboraren aurka egiten duen borroka azaltzen du lanak, eta indarkeria terrorista du gai nagusietako bat. *La carta* (1990) eta *La soledad del ángel del guarda* (2007) lanek ere gai horretan sakontzen dute. *La soledad del ángel del guarda* nobelak mehatxaturiko irakasle baten itzal bihurtzen den gizon baten erretratu psikologikoa eskaintzen du, eta Espainiako Letren Saria eskuratu zuen 2006an.

1950eko hamarkadan sortutako egileen artean, nabarmentzekoak dira Miguel Sánchez-Ostiz, Antonio Altarriba, Miguel González San Martín, Paloma Díaz-Mas, Luisa Etxenike, José Javier Abásolo, Fernando Marías, Alvaro Bermejo, Fernando Aramburu eta Juan Bas.

Luisa Etxeniketik *La historia de amor de Margarita Maura* narrazio bilduma (1990) eta *Querida Teresa* (1988), *Efectos secundarios* (1996), *El mal más grave* (1997), *Los peces negros* (2005) eta *Ejercicios de duelo* (2010) eleberriak argitaratu ditu, besteren artean. 2008an, *El ángulo ciego* kaleratu zuen; laneko protagonistaren aita bizkartzaina da ofizioz eta ETak hil du.

Fernando Aramburu *Fuegos con limón* lanari esker egin zen ezagun, 1996an. Idazle-belaunaldi baten kronika da *Fuegos con limón*, eta Donostian girotuta dago, 1970eko hamarkadan. Ondotik, hainbat eleberri argitaratu ditu Aramburuk: Euskadi Literatura Saria jasotako *Los ojos vacíos* (2000), *El trompetista de Utopía* (2003), *Vida de un piojo llamado Matías* (2004) eta *Bami sin sombra* (2005). 2006an, *Los peces de la amargura* narrazioen liburua plazaratu zuen: ETaren biktimengan jartzen du arreta lanak, eta, hari esker, 2007ko Dulce Chacón Espainiako Narratiba Saria eta Espainiako Errege Akademiaren 2008ko Saria eskuratu zituen Aramburuk. *Patria* (2016) nobelarekin, berriaz, Espainiako Sari Nazionala jaso zuen.

1960ko eta 1970eko hamarkadetan jaiotako egileen artean, aipatzekoak dira: Pedro Ugarte, Juan Manuel de Prada, María Laura Espido Freire, Ander Izagirre eta Txani Rodríguez.



Pedro Ugartek hainbat narrazio bilduma kaleratu ditu: *Los traficantes de palabras* (1990), *Noticias de tierras improbables* (1992), *Manual para extranjeros* (1993), *La isla de Komodo* (1996) eta *Materiales para una expedición* (2003). Bere lehenengo eleberria, *Los cuerpos de las nadadoras* (1996), Heralde sarirako finalista izan zen, eta gaztelaniazko Euskadi literatura saria eskuratu zuen 1997an.

25 urte zituela, 1999an, Espido Freirek Planeta saria irabazi zuen, *Melocotones helados* lanari esker, eta sari hori irabazi duen egilerik gazteena izan zen. Pintore gazte bat da lan horren protagonista, ezezagun baten heriotza-mehatxuak hartu ostean etxetik alde egin eta aitonaren etxera doana

bizitzera. Aurrez, beste bi eleberri argitaratu zituen Espido Freirek: *Irlanda* (1998) —Frantziako Millepage saria— eta *Donde siempre es octubre* (1999). Liburu hauek ere idatzi ditu: *Diabulus in musica* (2001),

Etxenike, José Javier Abásolo, Fernando Marías, Álvaro Bermejo, Fernando Aramburu y Juan Bas.

Luisa Etxenike ha publicado el libro de narraciones *La historia de amor de Margarita Maura* (1990) y las novelas *Querida Teresa* (1988), *Efectos secundarios* (1996), *El mal más grave* (1997), *Los peces negros* (2005) y *Ejercicios de duelo* (2010). En 2008 vio la luz *El ángulo ciego*, novela que cuenta como protagonista con un joven cuyo padre, guardaespaldas de profesión, ha sido asesinado por ETA.

Fernando Aramburu saltó a la fama con *Fuegos con limón* (1996), crónica de una generación de escritores situada en Donostia/San Sebastián en la década de 1970. Después ha publicado las novelas *Los ojos vacíos* (2000), con la que obtuvo el Premio Euskadi; *El trompetista de Utopía* (2003); *Vida de un piojo llamado Matías* (2004) y *Bami sin sombra* (2005). En 2006 publicó su libro de relatos *Los peces de la amargura*, centrado en las víctimas de ETA por el que obtuvo el Dulce Chacón de Narrativa Española en 2007 y el Premio de la Real Academia Española en 2008. Con su novela *Patria* (2016) el autor obtuvo el Premio Nacional de Narrativa.

Entre los autores nacidos en las décadas de 1960 y 1970 destacan Pedro Ugarte, Juan Manuel de Prada, María Laura Espido Freire, Ander Izagirre y Txani Rodríguez.

Pedro Ugarte lleva publicados varios libros de narraciones: *Los traficantes de palabras* (1990), *Noticias de tierras improbables* (1992), *Manual para extranjeros* (1993), *La isla de Komodo* (1996) y *Materiales para una expedición* (2003). Su primera novela, *Los cuerpos de las nadadoras* (1996), fue finalista del Premio Heralde y obtuvo el Premio Euskadi en 1997.

A los veinticinco años Espido Freire recibió el Premio Planeta (1999) con *Melocotones helados*, convirtiéndose en la autora más joven en lograrlo. La novela cuenta como protagonista a una joven pintora que tras abandonar su casa por unas amenazas de muerte de origen desconocido, va a vivir a casa de su abuelo. Con anterioridad, Espido Freire había publicado otras dos novelas: *Irlanda* (1998), con la que obtuvo el premio francés Millepage, y *Donde siempre es octubre* (1999). Otros de sus libros son *Diabulus in Musica* (2001), *Nos espera la noche* (2003), *La diosa del pubis azul* (2005) y *Soria Moria* (2007). Su obra plantea la ambigüedad de las apariencias, el bien según los valores sociales y la fascinación por el mal, mediante mundos mágicos o en la vida cotidiana, creando universos muy complejos y tiempos inexistentes.

En lo que respecta a la poesía, en la primera mitad del siglo XX destacaron los siguientes nombres: Ernestina de Champourcín y el denominado «triumvirato de la poesía social» con Ángela Figuera Aymerich, Gabriel Celaya y Blas de Otero.

Ernestina de Champourcín perteneció a la Generación del 27 y elaboró una poesía intimista que se divide en tres fases: poesía del amor humano (1905-1936), poesía del amor divino (1936-1974) y poesía del amor sentido (1974-1991). Algunos de sus poemarios son *En silencio* (1926), *Ahora* (1928),



Nos espera la noche (2003), *La diosa del pubis azul* (2005) eta *Soria Moria* (2007). Itxuraren anbiguotasuna, gizartearen balioen araberako ongia eta gaizkiaren liluragarritasuna lantzen ditu Espido Freireren obrak, bai mundu magikoetan, bai eguneroko bizitzan, eta, horretarako, oso unibertso konplexuak eta existitu ez diren garaiak darabiltza.

Poesian, XX. lehen erdialdean ondoko egileak nabarmendu ziren: Ernestina de Champourcin eta *poesia sozialaren euskal triunbiratu* delakoa: Ángela Figuera Aymerich, Gabriel Celaya eta Blas de Otero.

Ernestina de Champourcin 27ko Belaunaldiko kide izan zen, eta poesia intimista jorratu zuen hiru fasetan: lehen fasean, 1905 eta 1936 artean, giza maitasunaren poesia; bigarrean, 1936 eta 1974 artean,

jainkozko maitasunaren poesia; eta, hirugarrean, 1974 eta 1991 artean, maitasun sentituarena landu zuen. Bere lanen artean aipatzekoak dira *En silencio* (1926), *Ahora* (1928), *La voz en el viento* (1931), *Cántico inútil* (1936), *Presencia a oscuras* (1952), *Cárcel de los sentidos* (1960) eta *Primer exilio* (1978).

Angela Figuera Aymerichek joera modernistako poesia landu zuen, emakumetasuna eta amatasuna ospatu eta emakumeen eta haurren kontrako gehiegikeriak salatzen. Bere lehen liburua *Mujer de barro* 1948an argitaratu zuen eta, ondotik, *Soria pura* (1949), *Vencida por el ángel* (1950), *Vispera de la vida* (1953), *Los días duros* (1953), *Belleza cruel* (1958) eta *Toco la tierra* (1962) plazaratu


zituen. Azken biek arreta handiagoa jartzen dute gizarte gaietan, eta sufrizten ari den gizakiaren aldeko jarrera sutsua adierazten dute.

Gabriel Celaya poeta aipagarria izan zen *poesia konprometitua* delakoaren barnean. Poesia existentsialista landu zuen lehen etapan. 1950eko hamarkadan, konpromisoaren estetikarekin bat egin zuen, eta horren fruitu dira *Lo demás es silencio* (1952) eta *Cantos íberos* (1955) poema liburuak. Halaber, espermentalismoa eta poesia konkretua landu zituen *Campos semánticos* (1971) lanean. 1986an, Espainiako Letren Saria eman zioten.

Blas de Oteroren ibilbidea hiru etapatan sailka dezakegu, poetak izan zituen hiru krisialdien arabera: etapa espiritual (1942), etapa existentsial (1950) eta etapa soziala (1955).

Gerraostean jaiotako poeten artean, aipagarriak dira: Juan Ramón Corpas, Eduardo Apodaca, Julia Otxoa, Francisco Javier Irazoki, Iñaki Ezkerra, Karmelo C. Iribarren, José Fernández de la Sota, Kepa Murua, Javier Alcibar, María Maizkurrena, Amalia Iglesias Serna, Eli Tolaretxipi eta José Blanco.

Julia Otxoa sortzaile aldakorra da eta poesia, arte plastikoak, haurrentzako kontaketa, mikroipuin edo mikrotestua, eta poesia bisuala landu ditu hasiera-hasieratik, saiakeraz eta egunkarietako artikuluez gain. 1978an argitaratu zuen lehen liburua, *Composición*



28. Karmelo C. Iribarren.

La voz en el viento (1931), *Cántico inútil* (1936), *Presencia a oscuras* (1952), *Cárcel de los sentidos* (1960) y *Primer exilio* (1978).

La poesía de Ángela Figuera Aymerich es de corte modernista, y celebra lo femenino y la maternidad, denunciando el abuso de mujeres y niños. *Mujer de barro*, editado en 1948, fue su primer libro, al que siguieron *Soria pura* (1949), *Vencida por el ángel* (1950), *Víspera de la vida* (1953), *Los días duros* (1953), *Belleza cruel* (1958) y *Toco la tierra* (1962). Estos dos últimos muestran un mayor interés por las cuestiones sociales y un posicionamiento radical en favor del ser humano que sufre.


Gabriel Celaya fue uno de los poetas destacados dentro de la denominada «poesía comprometida». Su primera etapa poética es de carácter existencialista. En los años 1950 se integra en la estética del compromiso, fruto de lo cual son los poemarios *Lo demás es silencio* (1952) y *Cantos Íberos* (1955). También ensayó el experimentalismo y la poesía concreta en *Campos semánticos* (1971). Recibió el Premio Nacional de las Letras Españolas en 1986.

La trayectoria de Blas de Otero puede clasificarse en tres etapas, que responden a los tres momentos de crisis que experimentó el propio poeta: la etapa espiritual (*Cántico espiritual*, 1942), la etapa existencial (*Ángel fieramente humano*, 1950 y *Redoble de conciencia*, 1951) y la etapa social (*Pido la paz y la palabra*, 1955).

Entre los autores de poesía nacidos tras la guerra se encuentran Juan Ramón Corpas, Eduardo Apodaca, Julia Otxoa, Francisco Javier Irazoki, Iñaki Ezkerra, Karmelo C. Iribarren, José Fernández de la Sota, Kepa Murua, Sergio Arroeta, Javier Alcibar, María Maizkurrena, Amalia Iglesias Serna, Eli Tolaretxipi y José Blanco.

Julia Otxoa es una creadora versátil que desde el principio ha cultivado la poesía, las artes plásticas, el relato infantil, el microrrelato o microtexto y

28. Karmelo C. Iribarren.



entre la luz y la sombra. Hasieratik, gerra aurreko eta gerraosteko poeta existentzialisten eta konprometituen (Antonio Machado, Federico García Lorca, Miguel Hernández, Blas de Otero, Ángela Figuera) eragin handia duen poesia landu du, baita isiltasunaren poesiatik hurbil dagoen poesia minimalista ere, prosa poetikoranzko eta aforismoranzko joera duten poemek osatutakoa. Hainbat liburu argitaratu ditu Otxoak, eta, horien artean, nabarmentzekoa da *Taxus baccata* (2005).

Saiakerari dagokionez, azpimarratzekoak dira hauek: Ramiro de Maeztu, Jorge Oteiza, Elías Amézaga, José María Jimeno Jurio, Manuel Leguineche, Fernando Savater, Jon Juaristi eta Daniel Innerarity.


Frantsesez idazten duten egileen artean, Marie Darrieussecq da zalantzarik gabe arrakasta gehien lortu duena. Emakumezko pertsonaiak, bikote-harremanak eta amaren eta seme-alaben arteko harremanak dira nagusi bere lanetan, eta desagerpenez, absentziaz, mamuez eta oroimena galtzeaz dihardu maiz. Nortasun eta kideasun kontuak ere etengabeak dira bere obran. Besteak beste, lan hauek argitaratu ditu: *Truismes* (1996) [Ahardikeriak, 2005], *Naissance des fantômes* (1998), *Le mal de mer* (1999), *Précisions sur les vagues* (1999), *La plage* (2000), *Bref séjour chez les vivants* (2001), *Le bébé* (2002), *White* (2003), *Le pays* (2005) [Herria, 2005], *Zoo* (2006), *Tom est mort* (2007) [Tom hil da, 2007], *Tristes pontiques* (2008) nobelak eta *Le musée de la mer* (2009) antzezlanak.

Azken bi mendeetan, AEBetan bizi diren euskal jatorrikoen kopuruak nabarmen egin du gora, eta euskal-amerikarren bigarren, hirugarren eta laugarren belaunaldiko autoreak aipatuko ditugu guk: Miriam Isasi, Robert Laxalt, Frank Bidart, Frank Bergon, Monique Laxalt, Trisha Zubizarreta, Gregory Martin, Martin Etchart eta Gabriel Urza.

Robert Laxalt, zalantzarik gabe, idazle euskal-amerikarrik ezagunena da. *Sweet Promised Land* (1957) [Dominique, artzain xiberotar bat Nevadan, 1988 / Aita artzain zen, 2005] AEBetan bizi zen euskal erkidegoaren ordezkari aritzeaz gain, diasporaren errealitatea helarazi zien Europar bizi ziren euskal herritarrei, euskarazko, gaztelaniazko eta frantsesezko itzulpenei esker. Urte askoren buruan jaioterrira itzultzen den emigratzailearen esperientziaren lekuko leialtzat hartu izan dute lan hori, eta azaltzen du zer sentipen izan zituen

Laxaltek berak Dominique aitarekin batera Euskal Herrira egin zuen lehen bidaian. Nolanahi ere, ezin esan dezakegu *Sweet Promised Land* lana emigrante asimilatua den lekukotasuna denik, Dominiquek Euskal Herriarengana sentitzen duen arrotasuna inoiz bere etxe berriarengana (AEBengana) sentitzen duenarekin pareka baitaiteke. Laxaltek dioenez, artzaina zuen aita, eta mendia zen haren etxea. Muga da mendia, esekiduran dagoen toki bat, *hirugarren lekua* agian; mugatu eta, aldi berean, batu egiten du. Bi kulturaren artean dago Dominique; bata

29. Marie Darrieussecq.





29

la poesía visual (aparte del ensayo y el artículo periodístico). Su primer libro, *Composición entre la luz y la sombra*, vio la luz en 1978. Desde el principio, ha elaborado una poesía muy marcada por los poetas existencialistas y comprometidos de preguerra y posguerra (Antonio Machado, Federico García Lorca, Miguel Hernández, Blas de Otero, Ángela Figuera) y una poesía minimalista próxima a la del silencio, donde el poema tiende a la prosa poética y al aforismo. Entre sus catorce libros de poesía publicados hasta ahora, destaca *Taxus Baccata* (2005).

En el campo del ensayo en castellano destacan los siguientes autores: Ramiro de Maeztu, Jorge Oteiza, Elías Amézaga, José María Jimeno Jurio, Manuel Leguineche, Fernando Savater, Jon Juaristi y Daniel Innerarity.

Entre los autores vascos que escriben en francés Marie Darrieussecq es, sin duda, la más reconocida. En sus obras priman los personajes femeninos, las relaciones de pareja y entre madres e hijos. Son motivos recurrentes las desapariciones, la ausencia, los fantasmas o la pérdida de la memoria. Las cuestiones de identidad y pertenencia también son una constante en sus trabajos. Hasta la fecha, lleva publicados los siguientes títulos: *Truismes* (1996) [*Marranadas*, 1997], *Naissance des fantômes* (1998) [*Nacimiento de los fantasmas*, 1999], *Le mal de mer* (1999) [*Respirando bajo el agua*, 2001], *Précisions sur les vagues* (1999), *La Plage* (2000), *Bref séjour chez les vivants* (2001), *Le bébé* (2002) [*El bebé*, 2002], *White* (2003), *Le pays* (2005), *Zoo* (2006) [*Zoo*, 2012], *Tom est mort* (2007) [*Tom ha muerto*, 2008], *Tristes Pontiques* (2008) y la obra teatral *Le Musée de la mer* (2009).

Por otro lado, en los dos últimos siglos, el número de habitantes de origen vasco en los Estados Unidos de América ha ido en aumento. En este apartado citaremos el nombre de autores pertenecientes a la segunda, tercera y cuarta generación de vasco-americanos: Miriam Isasi, Robert Laxalt, Frank Bidart, Frank Bergon, Monique Laxalt, Trisha Zubizarreta, Gregory Martin, Martin Etchart y Gabriel Urza.

Entre ellos, Robert Laxalt es, sin lugar a dudas, el autor vasco-americano más conocido a un lado y al otro del océano. *Sweet Promised Land* (1957) [*Dulce tierra prometida*, 2000] no sólo dio voz a la comunidad vasca en los Estados Unidos de América sino que, a través de las

29. Marie
Darrieussecq.

LITERATURA

bestearekin zerikusirik ez duten baina, aldi berean, bere baitan bat egiten duten bi munduren artean. Bere errealitatea plurala da orain –egiaz, zer errealitate ez da plurala?–, eta, beraz, ez du onartzen singularra balitz bezala trata dezaten; hau da, ez du nahi bere iraganaren edo, zehazkiago esanda, bere iragan jakin baten arabera defini dezaten. *Sweet Promised Land* lanaren ondotik, AEBen mendebaldera emigratutako euskal familia baten esperientziei buruzko trilogia bat argitaratu zuen Laxaltek; familia horretako kide Pete Indart da kontalaria, eta liburu hauek hartzen ditu barnean: *The Basque Hotel* (1989), *Child of the Holy Ghost* (1992) eta *The Governor's Mansion* (1994).

traducciones del libro al euskera, castellano y francés, acercó la realidad de la diáspora a los vascos de Europa. *Sweet Promised Land*, que ha sido definido como fiel testimonio de la experiencia del emigrante que regresa después de muchos años a su tierra de origen, nos ofrece las impresiones del propio Laxalt en su primer viaje al País Vasco en compañía de su padre, Dominique. De todas maneras, no se puede decir que *Sweet Promised Land* sea el testimonio del emigrante asimilado. El extrañamiento que Dominique siente hacia el País Vasco es equiparable con el extrañamiento que en ocasiones muestra hacia su nuevo hogar, los Estados Unidos. En el que es quizás el más citado pasaje del libro, el comienzo, Laxalt nos dice que su padre era un pastor y que las montañas eran su hogar. Las montañas son un lugar de frontera, un lugar en suspensión, un tercer lugar si se prefiere; delimitan pero, al mismo tiempo, unen. Dominique se encuentra entre dos culturas, dos mundos que nada tienen que ver el uno con el otro, y sin embargo se encuentran unidos en su persona. La suya es ahora una realidad en plural (pero, ¿qué realidad no los es?), por lo que no admite ser definido en singular. De ahí que se resista a ser entendido solo en base a su pasado o, mejor dicho, a cierto pasado. Posteriormente, Laxalt publicó la trilogía basada en las experiencias de una familia vasca emigrada al oeste americano relatada por un miembro de la misma, Pete Indart, y compuesta por los siguientes títulos: *The Basque Hotel* (1989) [*The Basque Hotel. Nacido en América*, 2007], *Child of the Holy Ghost* (1992) y *The Governor's Mansion* (1994).

Bibliografía

Bibliografía

- Aldekoa, Iñaki (2004): *Historia de la Literatura Vasca*. Donostia: Erein.
- Chueca, Josu (2000): «Introducción histórica» in *Historia de la Literatura Vasca*. Ed. Patricio Urquizu. Madrid: UNED. 391-401.
- Ezkerra, Estibalitz (2013): “Other Basque Literatures” in *Basque Literary History*. Ed. Maria Jose Olaziregi. Reno: Center for Basque Studies. 329-350.
- Gabilondo, Joseba (2006): *Nazioaren hondarrak. Euskal Literatura Garaikidearen historia postnazional baterako hastapenak*. Bilbo: EHU.
- González-Allende, Iker (2007): «Género y Nación en la Narrativa Vasca durante la Guerra Civil española (1936-1939)». Tesis doctoral, University of Illinois at Urbana-Champaign.
- Lasagabaster, Jesús María (2002): *Las literaturas de los vascos*. Donostia / San Sebastián: Universidad de Deusto.
 - (1985): «Literatura y vida literaria» in *Euskal Herria. Errealitate eta Egitasmo. Realidad y Proyecto I*. Ed. Joseba Intxausti. Donostia / San Sebastián: Caja Laboral. 427-433.
 - (1981): «Euskal nobelaren gizarte-kondairaren oinharriak» in *Euskal Linguistika eta Literatura: Bide Berriak*. Ed. Antonio Tovar et alii. Bilbo: Deustuko Unibertsitatea. 343-368.
- Madariaga, Juan (2006): *Anthology of Apologists and Detractors of the Basque Language*. Reno: Center for Basque Studies-University of Nevada.
- Mitxelena, Koldo (1988): *Historia de la literatura vasca*. 1960. Donostia: Erein.
- Nuñez Betelu, Maite (2001): «Género y construcción nacional en las escritoras vascas». Tesis doctoral. University of Missouri, St. Louis.

- Olaziregi, Maria Jose (2013): "Worlds of Fiction: An Introduction to Basque Narrative" in *Basque Literary History*. Ed. Maria Jose Olaziregi. Reno: Center for Basque Studies. 137-200.
 - (2009): "Is There a Return of the Real in Postmodern Fiction?" in *Cultural and Media Studies: Basque / European Perspectives*. Ed. M. P. Rodríguez. Reno: Center for Basque Studies-University of Nevada. 53-80.
 - (1999): *Intimismoaz haraindi. Emakumezkoek idatzitako euskal literatura*. Donostia: Eusko Ikaskuntza.
- Olaziregi, Maria Jose; Otaegi, Lourdes (2011): «La representación del bombardeo de Gernika en la literatura vasca» in RIEV 8. 40-61.
- Otaegi, Lourdes (2013): "Modern Basque Poetry" in *Basque Literary History*. Ed. Mari Jose Olaziregi. Reno: Center for Basque Studies. 201-244.
- Walton, Priscila L., eta Manina Jones (1999): *Detective Agency. Women Rewriting the Hard-Boiled Tradition*. Berkeley: University of California Press.
- White, Linda (1996): "Emakumeen Hitzak Euskaraz: Basque Women Writers of the Twentieth Century". Reno: University of Nevada.
- Zavala, Iris M., ed. (2000): *Breve historia feminista de la literatura española (escrita en lengua catalana, gallega y vasca)*. Barcelona: Anthropos.



Estibalitz Ezkerra Vegas (Bilbo, Bizkaia, 1979)

Estibalitz Ezkerra Vegas ACLS Emerging Voices posdoktorego ikertzailea da Arizona State Universityko Historia, Filosofia eta Erligio Ikasketen Eskolan. Literatura konparatuan doktorego ikasketak egin zituen Illinoisko Unibertsitatean, Urbana-Champaignen, eta ingelesezko masterra Nevadako Unibertsitatean, Renon. Indarkeria politikoaren eta memoriaren alorrean lan egiten du, batik bat kultur ekoizpenean duten eraginari begira, eta immigrazio kontuetan ere interesa du. Euskal Herriko idatzizko prentsan ohiko kolaboratzailea da.

Estibalitz Ezkerra Vegas es ACLS Emerging Voices investigadora posdoctoral en la Escuela de Estudios de Historia, Filosofía y Religión de la Arizona State University. Es doctora en literatura comparada por la Universidad de Illinois en Urbana-Champaign, y obtuvo un master de literatura inglesa en la Universidad de Nevada, Reno. Trabaja en el campo de la violencia política y la memoria y el efecto que tienen en la producción cultural, y también tiene interés en cuestiones de inmigración. Es colaboradora habitual en la prensa escrita del País Vasco.

KREDITUAK / CRÉDITOS

Euskal Kultura sailaren edizioa

Edición de la Colección Cultura Vasca
Etxepare Euskal Institutua

Testua / Texto

Estibalitz Ezkerra Vegas CC BY-NC-ND

Gaztelaniazko itzulpena

Traducción castellano
Estibalitz Ezkerra Vegas

Edizioa / Edición

Miriam Luki Albisua

Maketazioa / Maquetación

Infotres

Diseinua / Diseño

Mito.eus

Azaleko argazkia / Foto de portada

Bizkaiko Foru Liburutegia / Biblioteca Foral de Bizkaia - Julen Altube Zigarán

Argitalpen urtea / Año de publicación

2023

Argazkiak / Fotos

1. Polikarpo Elozegi - Gure Gipuzkoa CC BY-SA 4.0
2. Nagore Txintxurreta CC BY-SA 4.0
3. Gerediaga Elkartea / Asociación Gerediaga
4. Gerediaga Elkartea / Asociación Gerediaga
5. Badok.info. CC BY 3.0
6. Julen Altube Zigarán
7. Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbao
8. Etxepare Euskal Institutua
9. Hea Kultura Elkartea / Asociación Cultural de Hea
10. Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbao
11. Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbao
12. Laura Mintegi
13. © Erein argitaletxea / Editorial Erein
14. Gerediaga Elkartea / Asociación Gerediaga
15. Gerediaga Elkartea / Asociación Gerediaga
16. Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbao
17. Gerediaga Elkartea / Asociación Gerediaga
18. Gerediaga Elkartea / Asociación Gerediaga
19. Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbao
20. Pilar G. Barco
21. Gerediaga Elkartea / Asociación Gerediaga
22. Jose Goiti
23. © Elkar Argitaletxeak SL / Editorial Elkar SL
24. Goierriko Hitza
25. Luis Zatika
26. Mitxel Atrio CC BY-SA 4.0
27. Luisa Etxenikeren Artxiboa / Archivo personal de Luisa Etxenike
28. Cordwainer CC BY-SA 3.0
29. Laukitik - Euskal Kultura Erakundea
30. Estibalitz Ezkerra Vegas

Etxepare Euskal Institutua

Etxepare Euskal Institutua erakunde publiko bat da. Gure helburua nazioartean euskara, euskal kultura eta sorkuntza sustatzea eta ezagutzera ematea da, eta, horien eskutik, beste herrialdeekin eta kulturekin harreman iraunkorrak eraikitzea. Horretarako kalitatezko jarduera artistikoak sustatzen ditugu, eta sortzaile, artista nahiz kultura-sektoreetako profesionalen mugikortasuna errazten dugu, baita euskararen eta euskal kulturaren irakaskuntza ere. Halaber, nazioarteko eragile kulturalekin eta akademikoekin elkarlana bultzatzen dugu. Zeregin horietan guztietan Euskadiko kanpo ordezkariak gertuko bidelagun ditugu.

Etxepare Euskal Institutua

Etxepare Euskal Institutua es una entidad pública. Nuestro fin es promover y dar a conocer internacionalmente el euskera, la cultura y la creación vascas, y construir relaciones duraderas con otros países y culturas a través de ellas. Para ello fomentamos actividades artísticas de calidad, y apoyamos la movilidad de creadores/as, artistas y profesionales de los sectores culturales, así como la enseñanza del euskera y de la cultura vasca. Fomentamos, asimismo, la colaboración con agentes internacionales tanto en el ámbito cultural como en el académico. En todo ello trabajamos en estrecha colaboración con las delegaciones de Euskadi en el exterior.





BASQUECULTURE.EUS
THE GATEWAY
TO BASQUE CREATIVITY
AND CULTURE

BASQUE.

Europarrok kultura-ondare oparoa partekatzen dugu, mendeetan zehar izan ditugun trukeen eta migrazio-fluxuen ondorioa dena. Hala, bertako hizkuntzen eta kulturen aniztasuna, berezi egiten gaituen horri esker guztiok jorritua, Europak duen balio handienetako bat da. **BASQUE.** lurralde baten isla da (euskararen lurraldearena), historia baten isla, mundua ulertzeko modu batena, gurea. Bere sustraieiz harro dagoen kultura baten adierazpidea da, ikuspegi berri bat eskaintzeko tradizioa eta abangoardia uztartzen jakin duen kultura batena. **BASQUE.** euskal kultura eta sorkuntza garaikideari begiratzeko leihoa da. Musikaren, dantzaren, antzerkiaren, zinemaren, literaturaren, artearen eta beste adierazpide batzuen bidez euskal kultura eta euskara ezagutzera emateko leihoa. Eta, era berean, sormenari zabalik dagoen leku bat da, partekatzeko, zubiak eraikitzeko eta solaserako, kulturen artean elkar aditzen lagunduko diguten elkarrizketa berriei bide emateko.

Los europeos compartimos una rica herencia cultural como resultado de siglos de intercambio y flujos migratorios. La diversidad lingüística y cultural es uno de los principales valores de Europa a la que todas y todos contribuimos desde nuestra singularidad. **BASQUE.** es el reflejo de un país (la tierra del euskera), de una historia, de una manera de entender el mundo, la nuestra. La expresión de una cultura orgullosa de sus raíces que ha sabido abrazar tradición y vanguardia para ofrecer una nueva mirada. **BASQUE.** es una ventana desde la que asomarse y descubrir la cultura y la creación contemporánea vasca a través de la música, la danza, el teatro, el cine, la literatura, el arte... Y su lengua, el euskera. Y, a su vez, un lugar abierto a la creatividad desde el que compartir, tender puentes y generar nuevas conversaciones que contribuyan al diálogo entre culturas.

EUSKADI
BASQUE COUNTRY



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO



ETXEPARE
EUSKAL
INSTITUTUA